

# **ELIAS AROSPE, ZUMAYA'KO ENDORE JAUNAK, ===== ETXEGARAI'TAR BONIFAZIO ===== JAUNAREN EUSKALTZAIN-SÁRERAN IRAKURITAKO ITZALDIA**

**Izkelzain garbalak. Andreak, Jaunak**

Egun atsegiañ ta oroigaría degu txit, gaurko eguna  
au, zumaiaräk.

Zer dala ta?

Gure uritar garbal ta maite bat Euskaltzaindiaren  
aulkietara igotze-eguna degulako.

Ta jai eder au bear dan eran ospatzeko, gure Eus-  
kaltzaindi goi - goikoa, gure uritxo maite onetara  
etori zaigulako.

Ederki ta ederki egin dezute izkeltzain jaunak, jai  
pozgarí au izkeltzain beriaren jayotz-uri beritan ospat-  
tzea ofu zaizutenean.

Eskergari ta txalogari zaizute, gertaera onen go-  
xotasun eta kutuntasuna obekiago muxtatutzearen,  
«ama» itz goxoen ta kutunen lenengo aldiz izkeltzain  
beriaren ezpañak zezeldu zuten Euskaleriko txoko  
ontara efortzea otutzeaz.

Nik uritar danen eta neure izanean eskeñik bero-  
enak ematen dizkitzutet ekartzen diguzuten andizuren  
onagatik, eta guztiok txalotzen zaituztegu geure indar  
osoakin...

Egia esan, ordea, naigabetxo bat badet biotzean  
aldi ontan: nere ez jakiñ ta izkel-toteltasunaz gertaldi  
oroigarí ontan itz egin beará; bañian egiz diotzutet

ere: Alaz ere, poz zait txit, beste aldetik, orlako erez  
atsegiañen aginduz, nere uri-arduratzagatik, itz egin  
bear izatea.

Barkatu bada, andre ta jaun agurgariak gertaldi  
ospetzu onetan, egitez ere nik alde artzea.

Zumaitarák: Ondo ezagutzen dezute izkeltzain  
beria: Boni itz erdiz, batzuek, eta Bonipaxio bestea  
deitzen diogu laztantsuz.

Erídko Epaileku goi-goyenekoan (Tribunal Su-  
premo gaztelaniz esaten zayo) ardura txit berezi ta  
goiko bat bere gañean darama eta osoro zuzen ta  
txalogari eraman ere...

Bañan bere buru argitsu ta jakintsua, aitatu dedan  
ardura oíek eskatzen diozkan egikizunak bete ondo-  
ren bere biotza dagoen lekura dijoakio: Euskaleŕira  
eta alduen guztian gorputzez ere onuntzatxe datorkigu.

Eta buru oíen almen aŕigaria eta gorputz zimel,  
bañan bizkor oíen kemen guztiak ere, bai, Euskeleŕi  
maitearen alde lanean nekatsu eta eten gabe lanean  
darabilzki.

Euskaleŕiko mendi, ibar, uri, ta txoko guztiak eza-  
gutzen ditu.

Ibilí oen emaitzat denbora luze ez baŕu liburu txit  
domutsu bat argitaratuko digu bere luma trebeak.

Udaraldian Madrid'tik etoŕi orduko, utzi bere kutu-  
nak, ondo irasirik, Zarautz'ko atseden paketsuan;  
asmantaŕez zankuak estali; bizkar gañean zoŕoa aŕtu  
ta eskubian makila... eta... antziak... bidez - bide,  
mendiz-mendi, ibaŕetik-ibar... uriz-uri.

Zertara dijoa... Zerk darabilki artega ta ainbeste  
ian artzen gizon ori.

Mendi, ibar, zelai ta uri oyei, berak txit ederki  
ezagutu zituzten, asaba zaŕen ekandu ta oituren beri  
galdetzera dijoa...

Euskaleriaren kondairan, mami-mamiraño sartugureak darama...

Gure jayotz-erí kutunaren ganako maitetasunak era ortan darabilki...

Gero bere jakinduri argia or eta emen Euskalerían zabalduaz nekaitsu badabil...

Ez det nai, andre ta jaunak, itzalditxo arloet au asko luzatu, zuek ez geyegi nekatzeařen; len ere onezkeró, naikoa aspertu zaituztet-eta.

Bañan, Andre ta Jaunák, ereti onek beste oroimen bat badakarkigu ere, nai ta navez, gure begien auřera: oroimen gozoa bera, benetan, gu guztiontzat.

Danon españetan dabil bero-bero, une onetan bere izena: Karmelo Etxegarai jauna zana... Boni'ren anai bakára.

Karmelo'ren izatea ornitzen zuten doen berí: bere adimen, oroimen eta jakinduri arīgařien berí; bere biotzaren edertasun, kristautasun ta apaltasun arīgařiagoen berí zerbait emateko; itz batean; bere aunditasun goyenekoaren zerbaitxo ere, bear bezela, adierazteko, zearo kemenge aitortzen nayotzute ni.

Menéndez Pelayo, Toñas y Bagés, Aita Fita, Aureliano Fernández Gerá eta oyen aideko beste jakintsu ilezin batzuek adieraziko ziguten bero-bai bero Karmelo'ren bikaintasun arīgařia.

Azpeiti'n idiki zituen gorputzečo begiak, bañan berak zionez Zumaya'n zabaldu zituen animakoak.

Eta bere gazte-garai gosoen ta edeřena ementxe igaro zuan.

Oregatik, jayotz-uria maitatzen dan maitasunakiň maitatu zuen Karmelo'k beti uritxo au.

Izkeltzain jaun bería: Zor anitz zaizkizun goramenetatik nere mingain totelak gaur daramazkizun apurtxo auek ere badakit arantzak balira bezela zaizkitzula.

Gaztelerí aldetik zatozen bakoitzean eta gure Gipuzkoa maiteko mendiak urutira begiztutzean, zure biotzak xamurki dardar gipuzkoar alorkari jakin batera abestendu.

Ara nun diran, mendi maiteak

Ara nun diran zelayak

Baseiri eder txuri txuriak

Iturí eta ibayak

Ta zure lei bizi bat euskal-basetxeko ixil paketsu bizikera litzake:

Beti zuretzat Euskalerientzat il arteraño

Gorputz ta anima guztia

eta Laburdi'tar oleskariakin batera, gureganatzean, gozoro abestuaz:

Ikusten dezu goizean

Eguna azten danean

Menditxo baten gañean

Etxe txikitxo aitzin txuri bat

Lau aitz aundiren artean

Iturítxo bat aldean

Txakur txuri bat atean

An bizi naiz ni pakean.

Bañan Jauna barkatu. Guk ere gaur gure beará bete bear degu; zuri dizugun zoña zerbait kendu nai degu.

Zumaiaŕak. «Laudemus viros gloriosos»...

Izki guren oek eskatzen diguten bezela, beste aldi batean Franziska Etxezáreta, guitar emakume orioigarí ura, eta Txomíñ Agiñe erdi baño geyago zumaitar zan euskaltzale bikain ta idazle garbal ura goratu giñuzen bezela gaur Etxegarai'tar Bonifazio gure uritar jakin-

tsu au aipatzen degu; eta bere izena Etxabe, Olazabal, Goiguru, Sasiola, Azpiazu eta beste ilezin izenakin gaurtik alkartzen degu.

Ta uriko seme gailenduak goratzean gure uritxoa goratzen degu; GORA BADA IZKELTZAIN BEŘI, GURE ETXEGARAITAR BONIFAZIO JAUNA.

---

# EUSKAL ERÍKO ETXÊN IZENAK

Euskaltzain jaunak:

Lan au egin dedan bitartean oñazea eta miña laguntzat euki ditut: asieran, Karmelo, anai on, irakasle idegabeko, erakusle jakintsua, ilberia zan; bukaeran, Karmentxo, nere alaba laztan, maitalari, pozkoña, zerura igo da. Malkoak eta zotiñak maiz autsi dute orain irakurtzera nijoan itzaldia eta naigabearen samintasunak nere buruaren argi makalak ilunpetu ditu. Gauí nere jaioterí maite-maite onetara natoí eta emen beríten dira neretzat oroipen neketsuak. Bakaí-bakaík gelditu naiz; guztiak, guraso, anai-aíreba, nere aurzaroa zaindu zuten guztiak joan ziran; batzuek oí Aritokieta'ko Amaren itzalpe donean daude. Apaizaita agurgaí, ontzale, arduratsu Manuel Beobide jauna joan zan; Domingo Agirre idazle bikaiñ-bikaiñetakoa, biotz-biotzeko adiskidea ere bai... ¡Eta ainbat aurjolas lagun! Otoiz sutsu bat eriotzeak gugandik banatu zi-tuenentzat, agurí samurí bat nere eritaí guztientzat.

Bárka zaiozute, jaunak, biotz atsekabedunari laríaldiaren lasaitzea eta entzun nazazute nekez beteak daudenai ematen zaien onginai erukitsuz.

Karmeloren ondorekotzat deitua izan naiz eta emen natoí aren utsunea betetzena, zuek esaten dezutenez; eziñezkoa dala ori badakit nik; Karmelo zein zan iñork baño obeto jakiña daukat; dakizkidan gauza guztiak berari zoí dízkiot; nere argaltasuna bene-benefan dazagut eta beretsitzen zaidan egikizunerako txiroa nai-zela eztago esan bearík. Banatoí ala ere zuen artera;

¿zeŕ dala-ta?, ama euskerari diodan maitetasun bizi-biziak oldartzen nauelako; maitetasun au bakaŕik ekaŕiko dizuet, geiago ezin dedalako, eta ori ere nere anai gogoangaŕiak txiki txikia nintzanetik biotzean piztu zidan. ¡Zorionekoa izan dedila bere oroimena!

Gauŕ Euskal-eŕiko etxen izenez zerbait esango dizuet; akazduna irudiko zaitzue lan au; ala da, ez nerea dalako bakaŕik, jardun baten neuŕi estuak zabalpen aundirik ematen ez dualako baizik. Norbaitentzat emen agiriko diran ziñespideak oneretsuak badira-atse ginduko naiz; geienak neronek azterkatu ditut; batzuek Eleizalde zanak amaitu gabe utzi zuen bildumatik artuak dira (1). Zoritxaŕez lasteŕegi il zitzaigun Bergara’ko seme ospatsu, buruargi, biotz-aundi, euskal-tzale zintzo ura.

\* \* \*

Euskal-eŕiko etxea bakaŕtua egoten da; mendietan baso, soro eta zelaiez inguratua; auzotegi eta uri txikietan, beste bizitegiz moŕdotua egonaŕen, etxegain edo teŕlatuko urak alde guztietara bere luŕunean ixuriko ditu. Naiz mendian, naiz urian, etxe bakoitzak atari bat du; an ipiňiko dituzte etxegizonak nekazaritzako tresnak batzuetan, simauŕa bestetan eta ura izango da gaztén jolas-tokia eta berŕtan aguretxoak patxada edeŕean pipabelar a eŕeko du eta emakumeak mus edo truke jokuan jai egunetako aŕatsaldeak igaroko dituzte; umetxoak ere, an, atarian, beren lenengo oinkadetan ibiliko dira. Euskal-eŕiko etxea, txuri naiz ilun, aundi naiz txiki, mendi-galur an agiria edo eŕeka

---

(1) Ikusi LUIS ELEIZALDE’ren lana, *Listas alfabeticas de voces topónomasticas vascas* izendatua, *Revue Internationale des Etudes Basques*’en 1922’ko 2, 3 eta 4 gaferen zenbakietan eta 1923’ko guztietaan ageftua.

sakonaren eŕtzean ezkutatua, ezta euskaldunentzat girotxaŕaren gogoŕkeriari itzul egiteko ateŕpe bat ba-karik; ori baño askoz geiago da. Su ondoan eseŕtzen dan aitonatxo zaŕ, ikarakoi, zimuráren gurasoak eta gurasoen gurasoak etxe áŕtan soŕtu ziran; seaska-txoan iribárez lotan dagon aurí txiki, guri, mamin-tsuauren ondorekoak antxe jaioko dira; antziňa-antziňatik, uruti-uŕutiko etorŕizuneraño etxeán iraungo da etxetik jatoría dakaŕen gizadia. Egoera au iristeko etxeko bizibidea zatitu gabe eukitza gauza beaŕezkoa da eta onela geŕtatzen zaigu Euskal-eŕian; beti dago zutik oŕela agintzen duen oikuntza zaŕa eta baita bearí ere gure euskal-itxura galdu nai ezpadegu.

Etxekoak bizitokiari dioten itsaspena ekandu askotan ikusi lezake; eromataŕak bezela itz batez gogamen bi adierazi ditugu euskaldunak: egongua eta berean diran lagun mordoska; *domus* aientzat zana, *etxea* guretzat izan da, *familia*'k ondasuna esan nai du; (1) guk ere *sendi* itz beria degu; lenago *etxadi* esaten zan (2). Noŕbait izendatu bearí danean Etxeberíko semea dala edo Eŕotatxoko alaba dala esango da; Txomin Agote'ri, Txomin Aŕetxe bere eŕitafak deituko diote, Aŕetxe baserian bizi dalako edo Aŕetxetik bere jatoría dakaŕelako; Eloŕiaga'ko neskatxa Arantza-mendi'ra ezkonduko zan eta Ipaŕagiré'ko mutila Ameriketara joateko asmoan ibiliko da. Gizasemeak, emakumeak eta sendiak ere izengabear dira; izapiderik eztute; etxeak bakaŕik ditu izena ta izapidea

---

(1) «La signification vŕai de *familia* est propriét ; il désigne le champ, la maison, l'argent, les esclaves, et c'est pour cela que les Douze Tables disent, en parlant de l'h ritier, *familia mancitor*, qu'il prenne la succession.»—FUSTEL DE COULANGES.—*La cit  antique.  tude sur les cultes, le droit, les institutions de la Gr ce et de Rome. Vingt-huiti me  dition.* Paris, 1924, 118 ofialdean.

(2) Azkue'k dakarzki bere *Diccionario vasco - espa ol - franc s*'ean Uriarte eta HARANEDER'en esakunza egokiek; ikusi an *Etsadi* itza.

Izen auen ezagutzari gaŕantzi aundirik ez dio ematen Vinson jakintsuak (1); baña ekandu batzuen edapena azterkatzeko gauza onuratsutzat daukat nik ezagutza ori. Etxeak izenik eztute gure Eŕiko luŕalde askotan; erbestekoen antzera, toki oietan egonguari etxeakoaren izena ematen diote; Euskal-eŕi geienean etxe bakoitzak bere izena du eta etxearen bizi danak etxearen izena aŕtzen du. ¿Noraño zabaltzen ditu bere sustraiak oitura onek? Au ikasteko nun eta noraño euskeraz itz egiten dan jakitea ezta aski: gaztelaréz bakaŕik mintzatzen diran Euskal-eŕiko uri askotan etxeak euskal-izenak dituzte; Napaŕoa'ko burundátarák etxeai izenik ez diote ematen. Etxeak izendunak izaten dira bakaŕtuak dauden tokietan, bai ta ere etxeko ondasuna zatitzen eztanetan; gertaera auetako batek, biak batean obeto, erakutsiko dizkigu oikuntza aren mugak; arau onék, guztiak bezela, ezuneak baditu. Zétasun bi oien batzaldia gure mendi audiennetik Kantauria'ko itsaso aldera ospatzen da: Prantziako Euskal-eŕi guztian; Napaŕoa'ko Baztan, Berbizarana, Doneztebe, Bortzérieta eta Araitz'en; Gipuzkoa'n; Araba'ko Aramaio, Laudio, Okendo, Ayala, Lezama eta Baranbio'n; eta Bizkai geien-geienean, ez Ibaizabal'tik eskubira kakaŕik, Ibaizabal'tik ezkeréra ere bai, Kadagua ibaiaren ubidean. Eta etxeak izenak dituzte, izen gaŕbiak, txukunak, egokiak, euskera galdu dan erietan ere. Ona batzuek: *Aratxe, Elesku-ren, Ametxaga, Egia...* Gueñes'en; *Bilotxi...* Sopuerta'n; *Arenatza, Aritzabe, Retola...* Zala'n; *Urda-negi, Axpuru, Laŕinburu, Idubaltza, Zabalburu,*

---

(1) «Il convient de dire que les noms de maisons sont en général, au point de vue qui nous occupe, moins intéressants que les lieux-dits ou les noms de villages; ils sont cependant encore utiles...» JULIEN VINSON, *Revue Internationale des Etudes Basques*, III gafen idazlia, 350 ofialdea.

*Ibaigarai, Ibaiguti...* Gordexola'n; *Amirola, Aretxa, Etxeandia, Mendieta, Uriondo, Irabien, Maldai...* Ayala'n; *Gastiaritu...* Okendo'n; *Laña, Olako, Basarate...* Amurio'n; *Egiluz, Aspiliga...* Lezama'n; *Isasi, Landazabal, Erotatxo...* Baranbio'n, Aspaldi aztu zan euskera eri abetan, geienetan beintzat, baña ala ere mendi, uri eta etxen izenetan oraindik entzuten da gure izkuntza maitagarriaren oyaritzun-iski bat. Kada-gua'ren ubideetik arantz ez; ango etxeak izengabeak dira; bakartu xamarák egonañen auzotegietan bilduak daude eta etxeko-ondasuna ondorekoen artean puska berdiñ-berdiñetan zatitzen da: *Kaŕantza'n* ikusi leike oso ederki au: Ayala, Okendo, Lezama eta Amurio-tárák beren Lege edo *Fueroa'kin* eta Aramaio eta laudio-tárák Bizkaikoakin seme zaŕenari edo lenengo eskontzen dan seme-alabari etxeko ondasuna oso osorik uzteko eskubidea badute; *Kaŕantza-tárák* ere bai, baña eztiole ajola aundirik ematen eskubide oŕeri: gazteláren antzera dabiltza gauza auetan, eta *Gazteleŕian* bezela etxeak izengabeak dira.

Urkabustaitz'ko ibaírák amaika eri ditu, geienak gure mendi aundienetatik Ebro ibai-aldera, basetxerik gabe; eta etxeai beren nagusi edo etxeakoaren izenaz berezten zaiote; baña Urkabustaitz'en badira bost eri—Guxuli, Oyardo, Untza, Uzkiano eta Inoso—Kantauri-ako itsasora urak bidaltzen dituztenak; eta eri oietako batek, Oyardo'k, etxe bakártu eta izendun batzuek badauzka: *Aŕostigutxi, Amarógin, Ugazi...* Árastari eta Urkabustaitz'en etxeko ondasuna zatitzen da. Araba geienean ere bai eta etxeak urietan bilduak ikusten dira eta izenik eztute; noiz edo bein bakártuak badaude, bakoitzak bere izena izango du; ona emen batzuk: *Aldaro, Igatz* (aŕtzai - txabolak), *Saría'n; Amaŕekozortea, Zigoiti'n; Mendikotxe, Betxiña, La-*

*Árabea, Txabolapea..., Legutio'n; Latxe, Urbina'n; Andra-Mari, Elgea'n; Martinalde, Bekotxalde, Ermu'n; Lomendi, Narbaxa'n; Alaiza-madura, Ulla, Salurtegi..., Agurain'en; Peñetano, Marisoro, Zaldunedo'n; Gañzabal, Marutegi, Araya'n; Karabide, Egi-no'n, Napañoa'ko mugan beritan.*

Bizkai'ko eñi bi, Otxandio eta Ubidea, Gorbea eta Urkiolako mendietatik Ebro aldera daude; baseñi asko dituzte ala ere eta etxeko bizibidea ezta puskatzen; eta, jakiña da, etxeak izendunak dira: *Moñgola, Bentatxuri, Itza, Anteparaluzeta, Korostondo, Atzineta, Basaguren..., Otxandio'n; Abeletxe, Albateta, Eloñiaga, Egiñakoa..., Ubidea'n.*

Napañoa, len aipatu ditudan lurraldeak kendu ezkerro, Pirineo'tik Ebro ibai aldera zabaltzen da baseñirik gabe; urietan moñdotuak daude etxeak; ipar-aldean bakañik dituzte boñda batzuek, baña boñdak eztu bizitegia esan nai, Pirineo'tik bera, Anue, Ultzama, Imotz eta Lañaun'en baizik, eta zenbatasun gutxian ibar auetan ere: Anue'ko Aritzun, bost; bi edo iru Olague'n; Imotz'ko Oskotz'en zortzi eta ez asko geiago Ultzama eta Lañaun'en; Anue eta Lañaun'en orain irurogei uñtetik onera boñdak bizitegiak dira; lenago, gauñ Eñonkari eta Saraitzu'n bezela, abeletxeak ziran; eta naiz bakañtuak egonañen izenik eztute; nagusitzat dituzten etxen izenak dauzkate.

Napañ-lur geienean txit zintzo zaitzen da etxeko ondasuna zatitzea debekatzen duen ekandu zaña, euskeraz mintzatzen duten urietan batez ere; Etxari-Aranatz'tik Araba'ko mugaraño, Burunda'ko Bakaikoa, Iturmendi, Urdian, Altzatsu, Olazagutia eta Ziordia'n ondasuna berdintzen da ondorekoen artean eta etxeak izenik eztute. Etxari-tik barura, Iruña-aldera, etxebidea ezta puskatzen eta etxe bakoitza bere izena izaten

du; oaígaíiak dira Uarité-Arakil'koak: *Oxana, Boŕ-boxtx, Estrútx, Eŕlantx, Eltxeł, Txangañ, Txantxil, Txirkilo, Pexkil, Txaršíñ...* Iruña-inguruetañ antziñaako oitura ezta epeldu; Biñaba'n zeŕbait, baña jatoŕiko etxeak izendunak dira: *Aizkena, Motxa, Beltxa, Txanauisi, Txatxalan.* Ansoain'go aranean, Iruña'ko atêtan berítan, buditugu *Elizaldea, Gaŕziarena, Labiorena* eta abaŕ; Oltzaran'en, *Aŕiaga, Amatriain, Balerdi...*; *Zizurí-ibaŕen, Ariñena, Aldabe...*; Olaran'en, *Ansorena, Urkia...*; Itzaran'en, *Arakoetxe, Goikoe-txea, Ituríkoa, Pedrorena, Ostatuko...* Galaŕibaŕen, *Anjeltorena, Etxeandia, Iribáŕengoa, Ezkeŕarena...*; Aranguren'en, *Etxebakaŕekoa, Salaberri, Mateorena, Goitikoetxea, Kristobalena...*; Egues'en, *Alonsorena, Apezaŕena...* Iruña'tik Lizaŕa aldera aunitz galdu da oitura zaŕa; badira ala ere *Butxuri, Oderiz, Gońi...* Muruzabal'en; *Aŕmendaritz, Mutikóandia, Txaŕdin, Ureta, Beŕgara, Zabalegi...* Obanos'en; *Arotxa, Zoko, Antxito, Mangana, Uriz, Eraso...* Mañeru'n; *Zotoaundi...* Artazu'n; *Muxa...* Zirauki'n; Atondo, *Malabre...* Garisoain'en; Mezkiriz, *Lizaŕondo, Garayalde, Motxikorena, Bakedano...* Gońibaŕen. Lizaŕa'tik aruntz, Araba'ko bidean, *Txabarí, Oses...* Olobaŕen'en; *Ontzela...* Ologoyen'en; *Antzin...* Metauten'en; *Andueza...* Ganutz'a'n. Iruña'tik Tafala aldera etxeak izendunak dira Eritz'en—*Lekunberri, Osinaga, Ugaŕte, Áŕastia...*—, Biuŕun'en—*Labari-koia, Ongai, Santxorena...*—, Iratxeta'n—*Etxandia...*, Sansoain'en—*Maskiliberri...*—, Barasoain'en—*Lepuzain...* Iruña'tik Sangoitzeraño buditugu *Agoŕeta, Iriaŕte..., Elo'n; Oŕdoki, Sunbeltz, Gerdosain...*, Ibaŕgoiti'n; *Elzuri, Irabelena, Orbaiz...* Beko Uŕaul'en; *Oŕdoki, Nagore, Aboŕea, Etxaŕen, Alzueta, Garate, Oyaga, Labairu, Leyun, Garzes, Txakuŕa, Izko...*,

Irunberri'n; *Soro, Nagore...*, Liedena'n; *Andaretx, Boñas, Jabala, Ayaíza, Gaíalda...*, Sangoitze'n; *Sueskun, Gaíalda...*, Leafxe'n; *Mutxil, Uritz, Ibaña, Txibeño, Larbaña...*, Sada'n; *Etxandi, Pedroxea, Baztan...*, Ayesa'n; *Laíaz, Arbeloa...*, Kaseda'n; *Añbeloa...* Oiba'en. Sangoitze'tik gora: *Oñadre, Mendia...*, Arbonies'en; *Uribikain...*, Murilo'n; *Egitza...* Napal'en; *Ezker, Elduayen, Beñoia...* Iso'n; *Maistuzaña, Eginoa, Txurut, Arost...*, Burgi'n; *Pasentxa, Maistera...*, Garde'n; *Salbotx, Burtiri, Landa...*, Bidangotze'n; *Donazar, Koxoa...*, Eónkari'n; *Nekotxea, Beñgara...*, Urtzainki'n; *Potxen, Txañantxulo, Labairu...*, Isaba'n; *Surio, Nekotx. Aguayo...*, Ustarotz'en. Esan genezake laburki aitatu ditugun erietatik Pirineo aldera etxeak izendunak dirala eta ez muga aietatik Eíberaruntz daudenak.

Píantzia'ko euskaldunak alduten eran eusten dute etxeko bizibidearen osotasuna, etxeak sakabanatuak dauzkate eta bakoitzari bere izena ematen zaio. Aita Lhande'k esaten digunez Biaño'n geítatzten da gauza ikusgarí bat. Euskal-jatoríko erí batzuek badira an: Espiute (*Azpilda*), Nabas (*Nabarzi*), Castelnancamblon (*Gaztelubérbi*), Angous (*Angastue*), Montory (*Berorize*), Lannes (*Landa*), Aramitz, Ance (*Arhanze*), etaan baí. Euskal-eríko mugetatik aruntz daude, baña euskal-oiturak badituzte. *Berorize'n* (Montory'n), biaño'tařen izkuntza aña euskera entzuten da; *Aramitz'en* sei edo zazpi etxeri euskal-izenak ematen zaiote: *Zatzuri, Aizager, Laborda, Elxantgoberi...* *Landa'n* (Lannes'en), ori bera ikusi liteke: *Uñuríño, Mendiondo, Aizoberi, Ordokihandi...* Biaño'n, Píantzia geienean bezela, jayotzen zenbatasuna aunitz uŕitu da; Euskal-eríian, ez; oregatik Biaño'ra ezkontzen dira euskaldun asko eta goxo-goxo ango etxen

jabe egiten dijooaz. Au da Aita Lhande euskaltzain eta idazlari bikaiñaren iritzia. (1)

Etxe zañaren órdez beste toki batean beria egin dalako, menditaren uriko biztegiak basegia bezela deitzen zaiotelako edo irika eta parez izena sortu zala-ko, au okeñezkoa izatea geítatu liteke, baña gutxitan. Geienetan eñen izenen ezagutzak erakutsiko digu beren goibetasuna; iraslien albistea etxekoena ogibidea edo biztegiaren etorrikizuna, bai ta ere; eta maiz nola etxeak egin ziran. Edestiak ageítzen du antziñako biztegiak zurezkoak zirala (2); oraindik orelako oŕmak dituzte baseri askok. Basoak uritu ziralako edo sualdien gaitzureak itzuritzeko, gure asabak aŕizko biztokiak egiteko asmoa aŕtu zuten; ala ditugu ainbat *Aretxe*, (Igeldo'n, Azpeitia'n Tolosa'n, Oñati'n...), *Harétxe* (Laresoro'n, Ahetze'n...), *Aratxe* (Gueñes'en, Oñati'n...), *Aratxoa* (Eratzu'n, Amayur'en...), *Aretxoa* (Ali'n, Beintza-Labayen'en, Araitz'ko Gaintza'n, Lezaka'n, Elgorriaga'n, Naŕbarte'n, Oronotz'en, Intza'n...), *Aŕtxea* (Elizondo'n, Irurita'n, Arizkun'en, Arayotz'en...). Brunhes, lutelestilar ospatsuak edestutzen du nola Prantzia'ko Tolosa'n buztineŕedunak diran ez etxeak bakaŕik, eleizak eta jauregi oroigariak

---

(1) Ikusi Louis COLAS, *La Tombe Basque. Recueil d'Inscriptions funéraires et domestiques du Pays Basque Français. Études, notes et références diverses... Introduction de M. l'Abbé P. LHANDE, de l'Academie de la Langue Basque. Bayonne, MCMXXIII, XXVI ofialdeko bigañen oafean.*

(2) «Cuando aprovechándose de la gran cantidad de árboles que los bosques ofrecían, la mayor parte de las casas que se construían en las villas de Guipúzcoa eran de madera, y los medios para combatir el fuego se reducían a los más primitivos y rudimentarios, el peligro de que un incendio que estallase con alguna fuerza destruyese un pueblo entero, estaba muy lejos de ser exagerado. San Sebastián se quemó varias veces antes del siglo xvi, y cuando Enrique IV visitó la noble villa vizcaína de Durango, al ver que no tenía apenas un edificio que no fuese de madera, dijo que, la suerte de aquella villa estaba en manos de un loco.» *Villafranca de Guipúzcoa—Monografía histórica por Don CARMELO DE ECHEGARAY, Cronista de las Provincias Vascongadas y Don SERAPIO DE MÚGICA, Inspector de Archivos Municipales de Guipúzcoa. Irún, 1908. 255 of.*

baizik eta nola *Maison de pierre* deitzen dioten ařizko bizioki baferi; ori bera geŕtatzten da Anvers'en *Steen* (ari) izendatzen duten etxeakin. (1)

Bidakurutzetan eta ibaiak edo latsak batzen diran tokietan etxe-morđoskak ikusten dira. Brunhes'ek berak erakusten digu gizonak bizitegia ipintzeko ur' bizien edo bidēn auzotasuna bilatu dubela (2). Euskaldunak guztiz zintzo zaindu dute arau ori etxe askoren izenak esaten dutenez; oha ikasbide batzuek: *Ualde* (Goizueta'n...), *Ualdea* (Gartzain'en, Eŕatzu'n, Narbarte'n, Araitz'ko Azkarate'n, Doneztebe'n, Napaŕoa'ko Zubieto'n..), *Ualdegaraya* (Gaŕtzain'en...), *Ugalde* (Respalditza'n, Lezaeta'n...), —*txiki* (Ataun'en...), *Ugaldea* (Atalo'n, Lekarotz'en, Arayotz'en...), *Ugaldetxea* (Lantz'en...), *Ugalde-nagusia* (Idiazabal'en...), *Uhalde* (Mehaire'n, Ibarola'n, Behorlegi'n, Iholdi'n, Haltsu'n...), *Uhaldea* (Arbendaritze'n...), *Uraldea* (Irueta'n, Urdazuri'n...), *Uhart* (Uharte'n...), *Uarte* (Uztegi'n...), *Uartenea* (Elbetea'n...), *Ugarie* (Muŕga'n, Olabezaŕ'en, Goŕdexola'n, Usuŕbil'en, Oyaŕtzun'en, Eritz'en...), *Ugaŕtea* (Urdazuri'n...), *Ugazi* (Oyaŕdo'n...), *Uraŕte* (Goŕdexola'n...), *Ureta* (Lanteno'n, Garayo'a'n, Obanos'en...), *Ubaŕenea* (Eli-zondo'n...), *Ubidea* (Areso'n...), *Ubiaŕte* (Sojo'n...), *Urumea* (Betelu'n...), *Urketabasu* (Luyando'n...), *Iturri* (Orbara'n, Aežkoa'ko Iriberry'n...), *Ituria* (Murga'n, Zugaŕamurdi'n...), *Itureta* (Goŕdexola'n...), *Iturenea*, *Iturégia* (Eŕatzu'n...), *Ituriburu* (Salmanton'en...), *Ituriburuua* (Eŕatzu'n...), *Ituriburuena* (Maňaria'n...), *Ituríaga* (Berute'n, Elizondo'n, Abauŕegaina'n,

(1) JEAN BRUNHES.—*La Géographie humaine. Troisième édition. Paris, 1925.* Igo id, 100 ofr.

(2) BRUNHES, *op. cit.* Igo id, 136 eta 161 ofaldeak.

Abauŕepea'n, Arano'n...), *Ituríbaria* (Menagari'n...), *Ituríkoia* (Etxaleku'n, Makiriai'en, Arakil'ko Uŕizola'n, Almandotz'en, Abadio'n...), *Ituríoetxea* (Elizondo'n...), *Ituriondoa* (Arikun'en...), *Ituríno* (Befiatua'n...), *Ituríotz* (Aranatz'en, Aya'n, Ataun'en, Oyaritzun'en, Ikaŕtegieta'n...), *Ituríotzea* (Garitzain'en...), *Iturítxu* (Luyando'n...), *Iturítza* (Aulestia'n, Motriku'n...); —*berí*, —*zaŕa* (Ataun'en...), *Iturízaŕea* (Ara-yotz'en...), *Iturítzaga* (Lazkao'n...), *Iturítxoko* (Lapurdi'ko Itxasu'n...), *Ituríalde* (Aria'n, Oŕbara'n, Eauŕta'n, Árasate'n...), —*txikia*, —*andia* (Azkarate'n...), *Ituríaldea* (Lasa'n, Almandotz'en, Beŕoeta'n, Eŕatzu'n, Le-karotz'en, Irurita'n, Arizkun'en, Oronotz'en, Árayotz'en, Ezkuŕa'n...), *Ituríaldia* (Azpaŕne'n...), *Ituríbidea* (Elgoiriaga'n, Zozaya'n...), *Iturá-goikua*, —*bekua* (Amoroto'n), *Ituríbe* (Ataun'en...), *Eŕbituría* (Erbi'n), *Antzituríbi* (Eŕezil'en), *Akaiturí* (Aulestia'n), *Zaran-doa-iturí* (Laŕabetzua'n), *Ibaiondo* (Iuŕeta'n...), *Ibai-zabal* (Menagari'n, Kostera'n...), *Reka* (Aria'n, Aezkoa'ko Iribéri'n...), *Eŕeka* (Gartzain'en, Uŕdazuri'n...), *Eŕekalde* (Busunaritze'n, Eloŕyo'n...), *Eŕekaldea* Jasu'n, Eŕatzu'n, Oronotz'en, Árayotz'en, Donezte-be'n...), *Rekalde* (Aria'n, Aezkoa'ko Iribéri'n, Eritz'en, Eauŕta'n, Salmanton'en, Astigarraga'n...), *Rekaldea* (Uztegi'n, Olaibar'en, Napaŕoa'ko Zubietu'n, laben'en, Latasa'n...), *Rekalt* (Itzaltzu'n...), *Rekaŕte* (Idiazabal'en...), *Rekaŕtea* (Donamaria'n...), *Eŕekart* (Isturitze'n...), *Araneŕeka* (Aramayo'ko Ibaŕa'n), *Azkaŕaga-eŕeka* (Oñati'n), *Azu-eŕeka* (Lemoa'n), *Padura* (Luyando'n...), *Osinaga* (Eritz'en...), *Osiňaga* (Eŕnani'n, Oñati'n...), *Osiondo* (Bidania'n...), *Osinaldea* (Aranatz'en...), *Alaiza-Madura* (Agurain'en...), *Istilarítea* (Zugaŕamuŕdi'n...).

Lats eta ibaien urbiltasunak zubien beará eskatzen

du eta zubien inguruan dauden etxeak beren izenetan zētasun ura ageítzen dute: *Aŕzubi* (Oñati'n, Algoŕta'n...), *Aŕzubia* (Aya'n...), *Aŕazubi* (Aduna'n...), *Aŕzubiaga* (Árua'n...), *Mandazubi* (Ernani'n...), *Zubiaga* (Maroño'n...), *Zubialde* (Abauŕepea'n Ispuru'n...), *Zubialdea* (Oronotz'en...), *Zubiat* (Otxagabia'n...), *Zubiate* (Nagore'n...), *Zubiatea* (Eŕatzu'n...), *Zubiaundi* (Luzaide'n...), *Zubiaur* (Laudio'n, Orozko'n...), *Zubiauré* (Lasarte'n, Zumaya'n, Ataun'en, Oyaŕtzun'en...), *Zubibarri* (Luyando'n...), *Zubiburu* (Bidaŕain'en...), *Zubieta* (Oñati'n, Muxika'n, Laŕabertzua'n, Llanteno'n, Lekeitio'n...), *Zubiete* (Goŕdexola'n...), *Zubietea* (Gaŕtzain'en...), *Zubiko* (Laudio'n...), *Zubikua* (Antzuola'n...), *Zubiondo* (Mañaria'n..), *Zubipunta* (Eŕatzu'n, Irurita'n, Zoŕnotza'n...).

Baňa gizonak bizitokia ez du uŕ ertzean ipińi beártasun érgelenak azkitzeko bakaŕik; an bere egimena izkoŕtu da ekintza askotan, ola eta igaralanetan batez ere. Au ospatzen digute etxe-izen askok: *Lizaŕkola* (Andoain'en), *Aldaoala* (Idiazabal'en), *Ibaŕola* (Sara'n), *Ariztietako-ola* (Ayangiz'en), *Olaitzola* (Oyartzun'en), *Arkaola* (Abadio'n), *Atutxola* (Lemoa'n), *Trobikaola* (Mungia'n), *Baŕenola* (Azpeitia'n), *Goikola* (Koŕtezubi'n), *Beraskola* (Goŕdexola'n), *Zuaŕzola* (Oñati'n), *Moŕgaola* (Otxandio'n), *Ola* (Ataun'en, Uŕdazuri'n), *Olea* (Moŕga'n), *Olatxo* (Lasarte'n), *Oleŕtxea* (Bera'n), *Olaetxea* (Areso'n), *Olatxena* (Biurun'en), *Olaetxena* (Aŕe'n...), *Olalde* (Azpeitia'n...), *Olaburua* (Uŕdazuri'n...), *Olatza* (Albiztuŕ'en, Aduna'n...), *Olaberria* (Goizueta'n...), *Olazaŕ* (Oyaŕtzun'en), *Olaŕrea* (Elbetea'n...), *Goikolea*, *Bekolea* (Zaldua'n).

Igarari eŕota deitzen diogu; eŕota erdelkeria da, erdelkeri zaŕa; gauŕko gaztelarák *molino* antzińako *rueda*-n órdez esaten dute; ete *rueda*-tik edo bere

asaba *rota*-tik dator gure *eřota*. *Rueda* da Maroño'ko igaretxe baten izena. Euskal-eřiko igarak urak ibiltzen ditu; *Aize-eřota* baseřia bada ala ere Donostia'n, Ispaster'en ere bai, eta noiz baiten izango zan besten bat Lumo'ko mendi tontorean. Igara ekintzai ukitzen duten etxe-izen ugari baditugu: *Agoria-eřota* (Aya'n), *Amas-eřota*, *Arginberi-eřota*, *Amara-eřota*, *Amara-eřotaburu* (Donostia'n), *Arabe-eřota* (Eřezil'en), *Aran-guren-eřota* (Oyarzun'en), *Altzibař-eřota* (Etxano'n), *Ugalde-eřota* (Lařabetza'n), *Ayesua-eřota* (Uřetxua'n), *Azketa-eřota* (Árua'n), *Bařenerořota* (Gautegitz'en), *Bařenetxe-eřota* (Eibař'en), *Inpeřnuko-eřota* (Lekarrotz'en), *Marea-eřota* (Zumaya'n, Oriyo'n, Lekeitio'n, Plentzia'n), *Eřota* (Ataun'en, Ereño'n...), *Eřotatxo* (Mutiloa'n, Baranbio'n, Ataun'en...), *Eřotatxiki* (Donostia'n...), *Eřotabarri* (Aramayo'ko Ibařa'n, Oñati'n, Kořtezubi'n, Lařabetza'n...), *Eřotaberia* (Betelu'n...), *Eřotazarea* (Zugařamurdi'n...), *Eřotaburu* (Legorreta'n...), *Eřotalde* (Intza'n...), *Eřota-berea*, —garaya (Arizkun'en), *Eřotakua* (Zumaya'n...), *Eřotakoa* (Zozaya'n...), *Rotakoa* (Ařazuri'n...), *Goikoeřota* (Ařatzua'n, Elgoibař'en...), *Eřotaritxonea* (Legatzpia'n...), *Eřotazayanea* (Lezaka'n...), *Eřotazañanea* (Elizondo'n, Elbetea'n, Ařayotz'en...), *Bolu* Mungia'n...), *Bolue* (Erandio'n...), *Bolunbarri*, *Goenbolu* (Bergera'n), *Bolueta* (Begoña'n...), *Bolunburu* (Lemoa'n, Gizaburuaga'n...), *Boluzařeta* (Algorita'n), *Iarola*, *Iarolazařea* (Elbetea'n), *Egira* (Itzaltzu'n...), *Igarabi-de* (Ařibe'n, Uřestila'n..), *Eiherabide* (Arbendari-tze'n...), *Eiheralde* (Donemitxel'en...), *Anteparaluzeta* (Otxandio'n), *Lakitegi*, —txiki (Gatzaga'n).

Gizonen bizitegi árgalenak ere igaraipenerako une egokietan ipiniňak egongo dira (1). Baditugu Euskal-

(1) Ikusi BRUNHES loc. cit.

erian basetxe asko guztiz baztertuak, baña ala ere euskaldunak al izan dutenean etxeak bidêñ aldean jaři dituzte. Au agertzen digute izen askok: *Altzubide* (Irun'en), *Arbelbidia* (Iasu'n), *Arázpile* (Athařatze'n), *Arópside* (Zalgize'n...), *Bidaburua* (Bera'n), *Bidaŕtea* (Zibitze'n, Lasa'n, Naŕbaŕte'n...), *Bidartia* (Beskoi-te'n...), *Irubidaŕtea* (Oyereg'i'n...), *Bidebaŕiko* (Luyando'n...), *Bidegain* (Biskai'n...), *Bidegainea* (Laŕesoro'n, Arizkun'en...), *Bidondo* (Aezkoa'ko Iriberti'n...), *Bidegorria* (Beŕiatua'n...), *Bidagoŕia* (Naŕbaŕte'n...), *Bidegoŕieta* (Eŕatzu'n...), *Bidezabaleta* (Gorozi-ka'n...), *Aranbide*, *Arŕide* (Oyartzun'en), *Arŕide* (Iutxi'n, Gotañe'n...), *Bidetxe* (Zoŕnotza'n...), *Elizabidia* (Kanbo'n, Askain'en...), *Bereterŕbide* (Bitirine'n...), *Gaztanbide* (Ezpeleta'n...), *Gaztanbidea* (Senpere'n, Uŕdazuri'n...), *Oŕgainbidea* (Uŕdazuri'n...), *Iñabidea* (Eratzu'n...), *Irabide* (Aizaŕna'n...), *Iturŕbide* (Zaro'n...), *Iturŕbidea* (Gaŕtzain'en, Irurita'n...), *Kara-bide* (Egino'n), *Loŕbide* (Lezo'n), *Laŕabidea* (Pasaia'n), *Maizpide* (Lazkao'n), *Meŕkabide* (Donaisti'n), *Sarŕbide* (Otxagabia'n), *Zalbidea* (Koŕtezubi'n), *Landerŕbide* (Aya'n); baseŕi onetakua izango zan noski Oriyo'n *Landerŕbidera* deitzen dioten etxea egin zuana. Bidezabaletatik aldendua egonaŕen, bidezidoŕen uŕbiltasunean ikusi oi dira: *Estrata* (Beintza-Labayen'en...), *Estaŕtako* (Luyando'n...), *Zioraga-goiko*, *—beko* (Baranbio'n), *Inda* (Amayur'en, Lekarotz'en, Arizkun'en, Árayotz'en, Eŕatzu'n...), *Indakoa* (Oronotz'en, Almandotz'en, Beŕoeta'n...), *Indakotxea* (Irurita'n...), *Indarŕtea* (Gaŕtzain'en, Lakarotz'en, Irurita'n, Árayotz'en, Arizkun'en...), *Indarŕtenia* (Anhauze'n...), *Indabe* (Aribe'n...), *Indaburua* (Arizkun'en...), *Lopinda* (Abauŕepea'n), *Indagarategi* (Ainzila'n). Indak bidezi-

dóra adierazten du; latinezko *callis*'ek ere bai; *callis*' tik datozte gaztelaíezko *calle* eta *kale*, gure érdel-itza. Au edo euskaltasun bada-ezpadako *Karika* esan beáean, *inda* esatea ¿obeto egongo litzake? Noizbaiten, Iruña'n beintzat, oitu dute itz ori; XVII gañen eunkadan egin zan XIV gañeneko ageíkaietan *Pobla nova del Mercat* deitzen dan alderiaren atal bat; alderi oñetan nekazari euskaldunak bizi ziran eta bazituzten, atalak erakusten duanez, *Kakuninda-kalea* eta *Ur-dinda-kalea*. Orain beritan, Napañoako uriburuan, *Lindatxikia* (*Indatxikia*) deitzen diote *Rua chica* eta *Rua petita* aspaldian izendatzen zan kaleari (1).

Gure baseítaíak, bakaítuak bizi diralako noski, auzotasuna gaíantsi aundian daukate; auzotasun oñek eskubide asko ematen ditu baita egin-beáak ugari, inguruko etxeai *Auzoko*, *Auzoetxe*, *Auzobaí* (Oñati'n irurak), *Bezinobeí* (Unanua'n), *Aldeko* (Gorde-xola'n, Koñezubi'n...), *Aldekozea* (Ereño'n), *Aldekoa* (Gañzain'en, Árayotz'en, Lekarotz'en...) deitza gauza adieízea da; baña nola ez diran beti zintzoak izango auzoan bizi diranak, *Auzokalte* esatea auek bizi diran etxeai ondo egongo da; izen ori dute Aratz-Matximenta, Andoain, Irun, Oyartzun eta Idiazabal'ko baseí batzuek.

Maiz daude toki eíne, alai, gaíbaletan mendiko bizitegiak; *Ageíe* (*Agaíe* Bizkaiko alde askotan, Bergara aldean eta abar) edo *Agiré* izena egokia da berentzat. ¡Eta ainbat oñelako ditugu! *Ageíe* (Lazkao'n, Itsasondo'n, Oyartzun'en, Zarautz'en, Baliaírain'en, Albiztur'en, Oñati'n, Forua'n, Mañaria'n, Laíabetzua'n, Mungia'n, Orontz'en, Aezkoa'ko Irib-

---

(1) Napañaf idazlari argi Jesus Etayo jaunari abesti auek zof dizkiot.

ri'n, Leitza'n, Asme'n, Oztibaŕe'n, Behaskane'n, Árbendaritz'e'n, Heleta'n, Iholdi'n, Donamartihiri'n, Azparne'n...), *Ageŕea* (Eŕatzu'n, Irurita'n, Elizondo'n, Lekarotz'en, Arizkun'en, Iantz'i'n, Amayuŕ'en, Bustinta'n...), *Ageŕia* (Donibane Lohizun'en...), *Ageŕealdea* (Elizondo'n...); *Ageŕe-bengoa* (Gabiria'n...), *Ageŕeberea* (Irurita'n, Lekarotz'en, Bera'n...), *Ageŕegi* (Eŕnnani'n...), *Ageŕetxe* (Motriku'n...), *Agíre* (Naparroa'ko Zubiet'a'n, Oitz'en, Luzaide'n, Beotegi'n, Izoria'n, Respalditza'n, Goŕdexola'n, Bilbo'n, Erandio'n, Oňati'n, Alkitza'n, Irun'en, Alegi'n, Idiazabal'en, Motriku'n, Anoeta'n, Lazkao'n, Leaburu'n, Donostia'n, Andoain'en, Azpeitia'n, Astiasu'n, Gatzaga'n, Zumaya'n...), *Agíre-aldaí*, —*beltxe* (Gordexola'n), *Agíre-bárena* (Lekarotz'en, Amezketa'n...), *Agíre-etxeberí*, —*goena* (Amezketa'n), *Agíre-aundi* (Azpeitia'n), *Agíre-beko*, —*euŕeko*, —*goiko*, —*goiti* (Mungia'n), *Agíre-bekoa*, —*bedama*, —*goikoa*, —*saletxe*, —*txiki* (Eŕezil'en), *Agíre-berí*, —*txiki* (Irun'en), *Agíre-buru*, —*sarobe* (Aya'n), *Agíre-garaikoa* (Zarautz'en), *Agíre-gomezkoŕta*, —*muñondo* (Berǵara'n), *Agíre-saratsua*, —*zalbide* (Motriku'n), *Agíre-tolare* (Donostia'n), *Agíretxe* (Goŕdexola'n, Eŕezil'en...), *Agíretxo* (Azpeitia'n, Berǵara'n...), *Agírezabal* (Beasain'en...), *Agíre-zaŕ* (Láraul'en), *Ipaŕagíre* (Lezo'n, Zumaya'n, Azkarate'n, Iantz'i'n...), *Ipaŕagaŕe* (Lekeitio'n). Baňa toki iluntxuetan ere etxeak egon oi dira—*Sakoneta* (Motriku'n), *Nekotx* (Uztaŕotz'en), *Nekotxea* (Uŕtzainki'n), *Abaro* (Motriku'n), *Abaroa* (Sukafiesta'n)—; bazteretan ere bai—*Baztaŕtze* (Mungia'n), *Bazteŕtze* (Mendata'n), *Bazteŕetxea* (Ondaŕoa'n), *Bazteŕetxia* (Zalgiŕe'n), *Bazteŕalde* (Aretxabaleta'n), *Bazteŕeko* (Orozko'n), *Baztaŕika* (Gabiria'n), *Bazteŕika* (Elgeta'n)—; edo barenetan—*Baŕena* (Arakil'ko Zuatzu'n, Berǵa-

ra'n, Tolosa'n...), *Bařenengo* (Zoŕnotza'n, Baranbio'n...), *Bařengoa* (Motriku'n...), *Bařenengoa* (Mu-rueta'n, Zeberio'n, Orozko'n...), *Bařendain* (Alegi'n, Beasain'en...), *Bařendegia* (Bera'n...), *Bařenaberí* (Eibař'en...). Batzuetan goi—aldean etxeak daude: *Altube* (Elgeta'n...), *Altuberí* (Irun'en...), *Garai* (Gor-dexola'n, Olabezař'en...), *Garaiburu* (Oriyo'n...), *Garaiko* (Lusařeta'n...), *Garaikoa* (Eroibar'ko Loitzu'n, Oronotz'en...), *Garayalde* (Gordexola'n...), *Gora* (Eauřita'n...), *Izaře* (Amasa'n, Ataun'en...), *Burgo*, *Burgaňa* (Beřiatua'n); menditik bera bestietan: *Beiti* (Gorozika'n...), *Beitia* (Mořga'n...), *Beiti-gaztea*, —zařa (Albiztuř'en), *Beitikoa* (Eroibar'ko Loitzu'n...), *Beitikoetxe* (Aitzkořbe'n...); aldapetan maiz: *Aimendi* (Amezketa'n...), *Aldapa* (Donostia'n, Oyarzun'en...), *Aldape* (Lemoa'n...), *Aldapeta* (Donostia'n, Orozko'n...), *Aldapunda* (Ibařangelua'n...), *Aldatz* (Aya'n...), *Aldatze* (Galdakao'n...), *Egiluz* (Araba'ko Lezama'n...), *Egiluze* (Igeldo'n...), *Egiluzea* (Bera'n...), *Ikayeta* (Ondarоa'n...), *Petaratxe* (Lanteno'n...); eguzki aldian: *Arđialdea* (Irurita'n...), *Iguž-kiagiřea* (Bera'n...), *Eguzkitza* (Bizkai'ko Lezama'n, Lezo'n, Andoain'en, Usurbil'en...); mendigañean: *Muño* (Ataun'en...), *Muñoa* (Ikaztegieta'n...), *Monoguren* (Gorozika'n...), *Mota* (Lanteno'n, Aya'n...), *Oma* (Korťezubi'n...); mendi-lepoan: *Bizkařa* (Mařaria'n...); penditzenetan: *Ezponda* (Ainhoa'n, Bera'n, Narbarte'n, Oronotz'en...), *Ezpondaberí* (Eratzu'n...), *Ezponda-gara-ya*, —zařea, —garžinato (Arizkun'en); mugetan: *Mugitza* (Igeldo'n...), *Mugatz* (Aya'n...), *Mugauro*, —gotxi (Olabezař'en), *Mugaburu* (Salmonton'en...), *Munarieta* (Apata monasterio'n...), *Mugarieta* (Erezil'en...), *Mugaondo* (Ondaribia'n...); mendatetan: *Garat* (Landibaře'ko Donemartin'en...), *Garate* (Orbara'n,

Sorabila'n, Astitz'en, Baliarain'en, Abauréagaina'n, Irunberi'n...), *Añate* (Ataun'en...), *Añatea* (Gatzaga'n...), *Añáte* (Amezketa'n), *Arzate* (Ataun'en), *Aizate* (Naíbarte'n), *Lujatea* (Eíbi'n), *Ikatzatea* (Arizkun'en), *Zentzatea* (Garde'n), *Saratea* (Oyeregi'n); edo anbelan inguruetan: *Malkora* (Elbetea'n, Berá'n), *Amileta* (Antzuola'n...).

Etxeak izenak airtuko dituzte: zelai, soro, baratz edo laínañetatik. *Zelai* (Bera'n...), *Zelaya* (lantzi'n, Áraras'en...), *Zelhai* (Haltsu'n...), *Zelaikoa* (Gatzaga'n...), *Zelayeta* (Asteasu'n, Elizondo'n, Urdazuri'n, Lekarotz'en...), *Badazelai* (Eratzu'n), *Bazelayeta* (Lekarotz'en), *Aranzelai* (Galdakao'n), *Solua* (Autestia'n...), *Sologuren* (Kexana'n, Agiñaga'n, Gordexola'n, Etxano'n...), *Soroárte* (Itzia'r'en...), *Sorozabal* (Uzegi'n...), *Solozabal* (Zaldua'n...), *Bařensoro* (Zegama'n, Erezi'l'en, Árua'n...), *Beliosoro* (Itziar'én), *Goikosolo* (Respalditza'n), *Orituzaŕ* (Ereño'n...), *Orituoste* (Mañaria'n...), *Orituleku* (Abadio'n...), *Baratzaréta* (Zugaíramurdi'n, Sara'n...), *Baratzondoa* (Naíbarte'n...), *Baratzategi* (Donostia'n...), *Laŕain* (Atalo'n...), *Laŕańea* (Arizkun'en, Napaŕoa'ko Zubiet'a'n...), *Laŕańeta* (Izitz'en...), *Laŕinaga*, *Laŕińalde*, *Laŕinburu* (Gordexola'n), *Laŕinbe* (Ikaztegieta'n...), *Laŕineka* (Luyando'n...), *Laŕintza* (Beotegi'n...), *Laŕańet* (Gaŕalda'n...); inguruko gurutzéstatik *Aŕigurutze* (Oyaŕtzun'en), *Aŕikurutz* (Gatzaga'n), *Aŕikurutz-baŕena*, -koŕkoztegi, -juaniko (Oñati'n), *Burdinkurutz* (Gatzaga'n), *Gurutzondo* (Astigáraga'n...), *Krutexet* (Kanbo'n...), *Gurutziaga* (Erasun'en...), *Gurutzeaga* (Arano'n...), *Krutchaga* (Uztaritz'en, Uŕtzainki'n...), *Kurutzeta* (Aiheré'n...), *Kruzialde* (Baranbio'n...). Etxeai deituko zaiote *Areaga* (Bakio'n...), *Areta* (Donostia'ko Zubiet'a'n, Zizurki'l'en...), toki ondaŕtsuan daudenai;

*Elgezabal* (Zorñotza'n...), *Agoretxe* (Itsasondo'n...), *Aldarío* (Saria'n), *Aldarreta* (Ataun'en...), Iru-arotunak edo baster árgaltxoak baditue; *Jauregi* (Menagarai'n, Goŕdexola'n, Irura'n, Amezketa'n, Aya'n, Eŕnani'n, Zumaya'n...), *Jauregia* (Gulina'ko Agiñaga'n, Mendibe'n, Lekarotz'en, Amayur'en, Irurita'n, Arizkun'en, Zozaya'n, Árayotz'en, Zugaŕamuŕdi'n, Anotzibar'en, Donamaria'n...), *Jauregiberí* (Luzaide'n, Izur'a'n, Asme'n...), *Jauregibarí* (Yuŕe'n...), *Jaraberí* (Árayotz'en...), *Jauregibería* (Oronotz'en...), *Jauregi-barí*, -*zarí* (Gordexola'n), *Jauregizaŕ* (Bakio'n: gauŕ dxoizeŕ esan oi da), *Jauregizárea* (Arizkun'en), *Jauzaŕea* (Irurita'n, Arayotz'en...), *Jauregibengo* (Zuazá'n), *Etxanojaurregi* (Etxano'n), *Treňajauregi* (Abadio'n), *Gaztelubería* (Kanbo'n...), *Gazteluzára* (Elbetea'n...), *Gaztelugoitikoa*, -*beitikoa* (Abadio'n), *Gaztelunea* (Oronotz'en, Etxaleku'n...), *Gaztelutxo* (Laŕabetzua'n...), *Dorén* (Irurita'n, Amayur'en, Arizkun'en, Bera'n, Olabide'n, Egularas'en, Eŕbiti'n, Beuntza'n, Egiaŕeta'n labar'en...), *Toŕe* (Lasaŕte'n, Zumaya'n...), *Toŕea* (Igal'en, Aduna'n...), *Toŕebaŕi* (Koŕtezubi'n...), *Toŕeburu* (Etxano'n...), *Toŕe-luzea*, -*motxa* (Zarautz'en), *Toŕetxiki* (Oyaŕtzun'en...), *Toŕezabal* (Galdakao'n...), *Bareñengotoré* (Ayangiz'en), *Alostórea* (Deba'n), *Aldazabaltoŕea* (Itziar'en), *Aldaztoŕe* (Lekeitio-ondoan), jauregi, gaztelu edo doŕe aspaldian izan badira; *Abelatx* (Eŕnani'n...), *Abeletxe* (Motriku'n, Elgeta'n, Ubidea'n...), *Agiñsa-saletxe* (Alkitza'n...), *Zarikoŕta* (Gatzaga'n...), *Txaŕiketa* (Forua'n), *Urdanegi* (Gordexola'n), *Boŕda* (Amezketa'n...), *Boŕda-aundia* (Pasaia'n...), *Boŕdakoetxea* (Zugaŕamuŕdi'n...), *Boŕdatxo* (Lezo'n...), bizitokiak baño lenago abeltegiak bazi-ran; *Akeŕ-lubarí* (Berǵara'n), *Azkonaŕzuloeta* (Deba'n), *Satoretxe* (Aŕasate'n), pizti-lekuauan badaude;

*Zabala* (Etxano'n...), *Zabalea* (Ero'n...), *Zabaleaga* (Getaria'n...), *Zabalburu* (Górdexola'n...), *Zabalbetxi* (Murga'n...), *Zabaleta* (Idiazabal'en, Árasate'n, La-saíte'n...), *Zabalotegi* (Azkoitia'n...), *Zabalegi* (Obanos'en...), toki gaŕbietan ezaŕiai. Mendi edo urialdean agerŕtzen diran etxeak izen egokiak dituzte: *Mendia* (Menoyo'n...), *Mendaŕte* (Luyando'n...), *Meridibehere* (Ahatsa'n...), *Mendibeheria* (Irisári'n...), *Mendialde* (Gaŕalda'n...), *Mendibil* (Izoria'n, Luyando'n, Zua-za'n, Górdexola'n, Eŕatzu'n, Iantzi'n, Oyártzun'en...), *Mendiburu* (Arberu'ko Donestebe'n, Biskai'n...), *Mendiondoa* (Lezaka'n, Uŕdazuri'n...), *Mendieta* (Menagarai'n, Agiñiga'n, Salmanton'en, Gordexola'n...), *Mendietxeberri* (Árasate'n...), *Mendigibel* (Leabu-ru'n...), *Mendiguren* (Gorozika'n...), *Mendizábal* (Áaras'en...), *Mendigorri* (Aiheŕe'n...), *Mendiko* (Kos-tera'n, Menagarai'n...), *Mendikoa* (Zeberio'n...), *Mendikotxe* (Legutio'n...), *Uria* (Gorozika'n, Eŕbi'n, Górdexola'n...), *Uriondo* (Salmanton'en...), *Uribe* (Ára-sate'n, Yufeta'n...), *Iribe* (Lazkao'n...), *Iriberrya* (Ariz-kun'en...), *Irigarai* (Mondolose'n...), *Irigoyen* (Izitz'en, Amayur'en, Aria'n...), *Irigoyenea* (Arizkun'en, Oyeregi'n...), *Irigainberria* (Irisári'n...), *Irigoinzahá-ŕeta* (Heleta'n...), *Iribarén* (Guesa'n, Uztogi'n...), *Iri-baréna* (Ripa'n...), *Iribarénea* (Arizkun'en...), *Iribar-ŕengoa* (Árteta'n...), *Iribarne* (Donepale'n, Arberu'ko Donemartin'en...), *Iribarňia* (Azpaŕne'n...), *Iribarénia* (Bera'n...), *Iriart* (Haspaŕaut'en...), *Iriarte* (Zizurkil'en, Andoain'en...), *Uriarŕie* (Olabezar'en...), *Iriarŕtea* (Irulegi'n, Áaras'en, Ostitz'en, Oronotz'en, Irurita'n, Árayotz'en, Zugarramurdí'n, Arizkun'en, Eŕatzu'n, Elizondo'n...), *Iriarŕenea* (Arizkun'en...), *Idiarŕt* (Ibil-tzieta'n...), *Idiarŕtea* (Ezkura'n, Gaŕtzain'en, Lekarotz'en...), *Idiarŕtia* (Árkiaga'n...), *Iribarri* (Oyártzun'en),

*Iribarria* (Bustintza'n...), *Iribarria* (Baigorri'n...), *Uribarria* (Yuŕe'n...), *Ulibarri* (Izoria'n, Respalditz'a'n, Ozeka'n...), *Ulizaŕ* (Maroño'n...). Eta ȝzeŕtako esan bear det asko ta asko dirala Euskal-eŕiko *Etxeberria*'k, *Etxegarai*'ak, *Etxaburua*'k, *Etxegoyen*'ak, *Etxeguria*'k, *Etxeaundi*'ak eta abaŕ?

Aŕizko eŕaiak dituzte gure mendiak eta an eta emen ikusten dira aitz tontoŕ buruzuriak eta bai ta ere z etasun oŕetatik izenak dituzten etxeak; *Aitza* (Zarautz'en...), *Aitzabe* (Oyarzun'en...), *Aizpe* (Beŕgara'n...), *Aizpea* (Legorreta'n, Altzo'n...), *Axpe* (Gaute-gitz'en, Mungia'n...), *Aŕibe* (Otxagabia'n, Arasate'n), *Aizpuru* (Galdakao'n...), *Aizpurua* (Azpeitia'n, Altzo'n, Donostia'ko Zubietan...), *Axpuru* (Izoria'n, Ayala'ko Retes'en, Goŕdexola'n, Laŕabetzua'n..), *Aŕburu* (Oyarzun'en...), *Aŕburua* (Zugaŕamurdi'n, Donestebe'n...), *Aitzaga* (Antzuola'n...), *Atxaga* (Forrua'n...), *Atxeta* (Elgeta'n, Orozko'ko Ibarra'n...), *Aŕkaitzaga* (Igeldo'n...), *Aŕiaga* (Aŕazuri'n, Azpeitia'n, Amasa'n, Olabezaŕ'en...), *Harriaga* (Sara'n...), *Aŕietxa* (Donostia'n, Oyarzun'en, Amezketa'n, Beasant'en, Zegama'n, Amasa'n...), *Aŕiola* (Orbaizeta'n), *Aŕietagan* (Ayangiz'en...), *Aŕegi* (Eauŕita'n, Orbara'n, Abauŕegaina'n, Abauŕepea'n...), *Haŕegi* (Gerezieta'n), *Aitzalde* (Albiztur'en...), *Aŕalde* (Astrain'en...), *Aitzar te* (Oyarzun'en...), *Aitzar te-aruzkoa*, -bedama, -onuzkoa (Eŕezil'en), *Atxar te* (Abadio'n...), *As-kondo* (Maňaria'n...), *Atxondo* (Ondaŕoa'n...), *Aŕondo* (Zerain'en, Zalgize'n, Murueta'n...), *Aŕondo* (Bera'n...), *Atxuri* (Orozko'ko Ibarra'n, Elgoibar'en), *Atxuritxo* (Elgoibar'en...), *Atxuriondo* (Beŕgara'n...), *Aŕizuria* (Laŕabetzua'n...), *Aŕibaltza* (Lumo'n...), *Aŕibaltzaga* (Oñati'n...), *Algori*, -zaŕ (Oyarzun'en...), *Aŕigoŕieta* (Zaldua'n...), *Aŕkaitzaundi* (Eŕezil'en...),

*Ariandi* (Gorotzika'n...), *Ariandia* (Lezo'n...), *Arluz* (Abadio'n, Antzuola'n...), *Arluzea* (Amayuí'en...), *Armendi* (Erezil'en...), *Aribiltoa* (Elbetea'n...), *Aribilaga* (Narbaite'n, Irurita'n...), *Arobi* (Abaurepea'n...), *ArgaÑea* (Arizkun'en...), *Argainea* (Aribendaritze'n), *Argaingana* (Sara'n...), *Arigoiko* (Etxegoyen'en), *Ariguain* (Ernani'n...), *Arizabalaga* (Arbaitzegi'n...), *Aritzete-txiki, -aundi, -beri* (Ataun'en...), *Arlepo* (Oyañzun'en...), *Arnaga* (Mungia'n...), *Arnabaré* (Getxo'n...), *Armurio* (Ataun'en...), *Azkarai* (Górde-xola'n...), *Azkoe, -txiki* (Aya'n), *Azkue* (Gipuzkoa'ko Ibara'n, Itziaí'en, Elgoibar'en...), *Aloska* (Ataun'en), *Burkaitz-garaya, -berea* (Árayotz'en).

Basoak ugari Euskal-errian baziran; orain ez ainbeste. Etxen izenak erakusten digute aspaldiko aberrastasun ura: *Barutibaso* (Kortezubi'n), *Basoko* (Gordexola'n...), *Basabale* (Sondika'n...), *Basabaré* (Eratzu'n...), *Basabe* (Gordexola'n, Azpeitia'n, Galda-kao'n, Aretxabaleta'n...), *Basabe-baúena, —goena, —saletxe* (Erezil'en), *Basabeurutikoandia* (Etxano'n), *Basabeltz* (Berbara'n...), *Basobeltz* (Zarautz'en...), *Basabil, —ixtiki* (Erezil'en), *Basetxe* (Amezketa'n...), *Basakoetxe* (Laíauri'n...), *Basakoetxea* (Bilbo'ko Laíaskitu'n...), *Basatze, —erdi* (Laíabetzua'n), *Basaúbe* (Laudio'n...), *Basagoiti* (Durango'n...), *Basagoyen* (Andoain'en...), *Basaguren* (Otxandio'n, Abadio'n, Laíabetzua'n...), *Basalde* (Lekeitio'n...), *Basarité* (Azkoitia'n, Alkitza'n, Zarautz'en, Berbara'n, Mungia'n...), *Basarité-azpikoa, —garaikoa* (Beasain'en), *Oihanaírt* (Iholdi'n...), *Oihanaírtia* (Laíazabale'n, Askonbegi'n...), *Oihenaírt* (Árast'en...), *Basatxueta* (Laíabetzua'n...), *Basazabal* (Alkitza'n, Berbara'n, Donostia'n...), *Basozabal* (Sondika'n, Koñezubi'n...), *Basozabal-bekoa, —beikoa* (Oñati'n), *Basozabal-etxebarí* (Mungia'n).

Mendien gerizpean ere badira etxeak: *Arana* (Abadio'n, Menagarai'n, Olabezañ'en...), *Haran* (Berauten...), *Aranburu* (Aizarna'n, Oyaritzun'en, Gipuzkoa'ko Gaintza'n...), *Haranburu* (Lantabat'eko Donezteban'en...), *Aranaldea* (Arezo'n...), *Arangoiti* (Lumo'n...), *Aranguren* (Laíabetza'n, Maroño'n...), *Araneder* (Oyartzun'en...), *Altzolaran* (Irun'en), *Altzuaran* (Elgeta'n), *Astizaran* (Ariaran'en), *Goyaran* (Donostia'ko Zubietan'), *Zuríbaran* (Begoña'n), *Santuaran* (Itziar'en), *Landa* (Eskarotz'en, Galues'en, Bidangotze'n..), *Landa-eŕdikoa* (Murueta'n), *Landaberea*, *Landagaraya* (Eratzu'n), *Landaberria* (Arizkun'en...), *Landaburu* (Luyando'n, Lemoa'n, Begoña'n...), *Landakoa* (Naŕbarte'n, Gaŕtzain'en...), *Landaldea* (Arizkun'en...), *Landalde* (Lemoa'n...), *Landarite* (Aldude'n...), *Landazabal* (Baranbio'n...), *Landeta* (Respalditza'n, Lemoa'n, Koŕtezubi'n...), *Landakoetxea* (Aranatz'en...), *Oŕdoki* (Ibargoiti'n, Beko-Uŕaul'en, Garayoa'n...), *Oŕdokia* (Irurita'n...), *Ibaŕia* (Sada'n, Goŕdexola'n, Kexana'n, Eŕbi'n, Izoria'n...), *Ibaŕe* (Oyaritzun'en...), *Ibaŕgarai*, *Ibaŕgutti* (Goŕdexola'n), *Ibarguen* (Goŕdexolan, Izoria'n...), *Ibaŕgain*, *Ibaŕazpi* (Astiasu'n), *Ibaŕbeitu* (Ibaŕe'n...), *Ibaŕbuia* (Donegratzi'n...), *Baŕetxe* (Gabiria'n...), *Baŕetxea* (Legorreta'n...), *Baŕetxeguren* (Respalditza'n...), *Baŕbara* (Laudio'n...), *Baŕondo* (Zaratamo'n...), *Ibaŕondoa* (Naŕbarte'n...).

Zuaitz, zugazno eta landarien izenezko etxe asko baditugu. Ona batzuek; *Aretxa* (Menagarai'n, Izoria'n, Respalditza'n, Koŕtezubi'n, Mungia'n...), *Aritzabalo* (Oyaritzun'en...), *Aretxabala* (Menagarai'n, Izoria'n, Murga'n, Olabezañ'en, Goŕdexola'n, Galdakao'n...), *Aretxaga* (Etxano'n...), *Arizpe* (Ayangiz'en...), *Harispea* (Beko-Napaŕoa'ko Azkarate'n...), *Arezti* (Aba-

dio'n...), *Arizti* (Idiazabal'en, Aduna'n, Astiasu'n, Goizueta'n...), *Ariztiburu* (Oyaítzun'en...), *Aritzaga* (Beizama'n), *Aristegi* (Gaítzain'en...), *Aristizabal* (Irun'en...), *Harismendi* (Oses'en...), *Arizmendi* (Árazuri'n...), *Arizmendi-azpikoa*, —gañekoa (Zaldua'n), *Arizmendi-berí* (Amezketa'n), *Areztieta* (Ayangiz'en...), *Aretxeta* (Mendata'n...), *Amairuaretxeta* (Abadio'n), *Aritzabaleta* (Oyeregi'n...) *Ametxazuña* (Goídexola'n...), *Ametzaga* (Gueñes'en...), *Ametzaga-aurrekoia*, —azpikoa, —bekoa, —garai, —goikoia (Aretxabaleta'n), *Ametzola* (Bilbo'n...), *Amezketalaídi* (Aya'n), *Ametzkoíta* (Goídexola'n...), *Ametzi* (Árayotz'en, Igeldo'n, Aya'n, Gabiria'n, Bergráa'n, Andoain'en...), *Ameztegikua* (Lizaraga'n), *Ameztoi* (Menaire'n...), *Ameztoyeta*, —berí (Oyaítzun'en), *Artadi* (Gantegitz'en, Ibaíangelua'n...), *Artari-txulo* (Ataun'en), *Artegia* (Erbiti'n...), *Arteaga* (Zumaya'n, Altza'n, Arasate'n, Apatamonasterio'n, Getxo'n, Zerberio'n...), *Artebaíena* (Gorotzika'n...), *Arteita* (Arasate'n...), *Arteixe* (Berímio'n...), *Arteia* (Zestua'n...), *Arteixeta* (Mungia'n...), *Paguaga* (Oyaítzun'en...), *Fagoaga* (Urdazuri'n...), *Pagadi* (Aya'n...), *Pagai* (Gorotzika'n...), *Pagaldegaraya* (Kanbo'n...), *Pagaríte* (Sorabila'n...), *Pagasondo* (Baranbio'n...), *Lizaríaga* (Berastegi'n, Astiasu'n, Oyaítzun'en, Eínnani'n, Bera'n...), *Lizarídi* (Eíratzu'n, Urnieta'n...), *Lizaríditxipia*, —aundiá (Bera'n), *Lizarídia* (Gaítzain'en...), *Lizaríburu* (Ataun'en...), *Lizaríena* (Azpa'n...), *Lizarígarate* (Oñati'n...), *Eloíriaga* (Koríezubi'n...), *Eloídi* (Motriku'n...), *Eloídia* (Árayotz'en...), *Eloírieta* (Astiasun'n...), *Eloírmendi* (Gipuzkoa'ko Gaintza'n, Donezteban'en...), *Eloírmendietxe* (Ataun'en), *Eloírdui* (Oñati'n...), *Aginaga* (Oyaítzun'en...), *Agiñaga* (Alkitza'n, Irun'en...), *Agiñaga-bekoa*, —goikoa (Gazte-

lu'n), *Agiñaga-etxeberi* (Anoeta'n), *Agiñegi Eŕezil'* en...), *Agiñazpi* (Astiasu'n...), *Agiñasaletxe* (Alkitza'n), *Agiñagalde* (Eŕezil'en...), *Aginazabal* (Laŕaul'en...), *Agiñeta-beri*, —zaŕ (Aya'n), *Aginetxe* (Azpeitia'n...), *Gorostadi* (Beŕiatua'n...), *Gorostiaga* (Azkarate'n, Zumaya'n...), *Gorostarzu* (Azpeitia'n...), *Korostondo* (Otxandio'n...), *Gorostitza* (Laudio'n...), *Garatzana* (Sorhueta'n...), *Azkarŕa* (Laŕabetzua'n...), *Azkaraga* (Zeanuri'n...), *Azkarŕdui* (Zaldua'n...), *Azkareta* (Oñati'n...), *Azkárta* (Gabiria'n...), *Astigariibia* (Motriku'n...), *Astigaranborda* (Irun'en...), *Gastigarŕea* (Banka'n...), *Altza* (Aramaio'n...), *Altza-txiki* (Oyaritzun'en...), *Altzaga* (Azpeitia'n, Erandio'n...), *Altzagarete*, *Altzaetxe* (Altzaga'n...), *Altzaŕate* (Amezketa'n...), *Altzaŕte* (Idiazabal'en...), *Alzat* (Gaŕalda'n, Oŕbaizeta'n...), *Altzate* (Lezo'n...), *Altzatsu* (Azpeitia'n...), *Altzeta* (Anzuola'n...), *Uŕategi* (Azkoitia'n...), *Uŕuzti* (Andoain'en...), *Uŕeaga* (Leaburu'n...), *Uŕeiztietza* (Motriku'n...), *Uŕestaratzu* (Ataun'en...), *Uŕetxaga* (Ayangiz'en...), *Sagastia* (Beruete'n...), *Sagastizabal* (Beizama'n), *Sagaŕdia* (Zugaŕamurdi'n, Uŕotz'en...), *Sagaŕdialdea* (Salmanton'en...), *Sagaŕdibeltza* (Gaŕtzain'en...), *Sagaŕdikoa* (Naparroa'ko Zubierta'n...), *Sagardoi* (Eskarotz'en, Aezkoa'ko Iriberti'n...), *Sagaŕdiazpia* (Bera'n...), *Sagaŕmendi* (Andoain'en...), *Sagaŕondoaa* (Gaŕtzain'en...), *Saŕmeneta* (Aya'n...), *Saŕminaga* (Goŕdexola'n...), *Sagaŕtzatzu* (Oyaritzun'en...), *Udariaga* (Elgeta'n...), *Madaria* (Goŕdexola'n...), *Gaztaňondoa* (Elbetea'n...), *Gaztaňaldea* (Zugaŕamurdi'n...), *Gaztaňegi* (Oyaritzun'en...), *Gaztaňadi* (Sorabil'a'n...), *Kastaňitza* (Goŕdexola'n...), *Moŕkostegi* (Andoain'en...), *Gerezeta* (Beruete'n...), *Intxauŕondo* (Berastegi'n, Lazkao'n...), *Urkiza* (Zal-

dua'n...), *Urkidizaŕ* (Astiasu'n...), *Sunhari* (Árast'en...), *Zugaŕ* (Senpere'n...); *Otamendi* (Áfasate'n...), *Otamendi-baŕena*, —*berí*, —*etxeberí* (Abalzisketa'n), *Otamendinea* (Lazkao'n...), *Otegi*, —*txo* (Erezil'en), *Otegienea* (Gerezeta'n...), *Oteginea* (Gipuzkoako Gaintza'n...), *Otondo*, —*azpi* (Igeldo'n), *Otondoa* (Eáratzu'n...), *Albitxo* (Górdexola'n...), *Albitxu* (Lazkao'n, Elgeta'n, Itxaso'n...), *Albitzu* (Legofeta'n, Erezil'en...), *Albitzuri* (Elgoibar'en, Amezketa'n...), *Albiztegi* (Elgeta'n, Alkitza'n...), *Itxaso* (Andoain'en...), *Intza* (Uŕnieta'n...), *Inztegi-zabal* (Árasate'n), *Itza* (Otxandio'n, Kexana'n, Menagarai'n...), *Itzeta* (Aya'n...), *Intxuste* (Otxagabia'n...), *Iñárea* (Irurita'n, Beintza-Labayen'en...), *Iñalea* (Nárbaré'n...), *Iñaran* (Lekarotz'en...), *Iñaldea* (Gaŕtzain'en...), *Mimena* (Beotegi'n...), *Mimentza* (Lanteno'n...), *Isasi* (Baranbio'n, Respalditza'n, Górdexola'n...), *Isasti* (Oyaritzun'en...), *Isastia* (Elizondo'n...), *Txara* (Arano'n...), *Arantzabe* (Albiztu'r'en...), *Arantzatzu* (Górdexola'n...), *Arantzamendi* (Motriku'n...), *Arantzatea* (Bera'n...), *Idazelaia* (Eáratzu'n...), *Irabien* (Morga'n...), *Irabi-goikua*, —*azpi* (Baliaŕain'en), *Irabaŕen* (Itzal'en...), *Aŕdantza* (Zumaya'n, Berímio'n, Etxegoyen'en...), *Beratzadi-berí*, --*zaŕa* (Zarautz'en), *Beratzaluze* (Deba'n...), *Beratzanea* (Lizarŕta'n...), *Beratzena* (Elgeta'n...), *Laŕa* (Amurio'n...), *Laŕabe* (Izoria'n, Agiňiga'n, Laudio'n...), *Laŕabea* (Legutio'n...), *Laŕagoyen* (Beko-Napaŕoa'ko Azkarate'n...), *Laŕagoŕia* (Górdexola'n...), *Laŕako* (Eŕigoitia'n...), *Laŕakoetxe* (Lasaŕte'n...), *Laŕalde* (Irisaŕi'n...), *Laŕaldea* (Irurita'n, Arizkun'en, Elizondo'n, Eáratzu'n, Gaŕtzain'en, Lekarotz'en...), *Laŕaldia* (Donibane Lohizun'en...), *Laŕamendi* (Olague'n, Jutsi'n, Getaria'n...), *Laŕamunua* (Lekarotz'en...), *Laŕat* (Otxagabia'n...), *Laŕatxuri*

(Arano'n...), *Laŕazabal* (Laudio'n, Begoña'n...), *Laŕea* (Respalditza'n, Goŕdexola'n...), *Laŕeburuia* (Kanbo'n...), *Laŕegoyen* (Eŕatzu'n...), *Laŕe-etxebería* (Donibane Lohizun'en...), *Laŕeta* (Amezketa'n, Forua'n...), *Laŕetxipi* (Irun'en...), *Laŕondo* (Itxasu'n, Ahatsa'n...), *Laŕtxea, —maxtería* (Lekarotz'en), *Almitze* (Berobi'n...), *Abarizketa-azpikoa, —garaikoa* (Beasain'en), *Azentzina* (Mungia'n...), *Idaŕeta* (Astiasu'n...), *Ilaŕaga* (Azkoitia'n...), *Ilaŕegia* (Naparroa'ko Zubietta'n...), *Ilaŕdo* (Amiskutzeko Kamu'n...), *Ilaŕazu* (Tolosa'n...), *Ilaŕatxota* (Zizurkil'en...), *Garagaríta* (Oyaŕtzun'en...), *Garagorí* (Andoain'en...), *Garagareá* (Oronotz'en...).

Etxe batzuek bestien menpetasunean, bizitegiak izan baño lenago, egonak dira, beren izenak ageŕtzen dutenez: *Astigaránborða Agiňasaletxe...* Auetako askok etxe-nagusiarena galdu dute: *Abeletxe, Boŕda...* Ori bera geŕtatzen zaigu *Maistería* deituakin; baditugu *Maiztería* (Garde'n, Garayoa'n, Aribé'n, Garalda'n, Orbara'n, Orbaizeta'n...), *Maistaŕena* (Nuin'en...), *Maisteŕena* (Amayur'en, Elgoiaga'n...), *Mais-teretxe* (Osinaga'n...). Moŕdotuak dauden baseŕiai izen bat danai ematea saritako gauza izan oí da; bakoitza banaitutzeko, *goikoa* esango zaio bati, *bekoa* bestiari, *erdíkoa* ari, *azpikoa* oneri; ofelakoak ugari itzaldi onetan aitatu ditut.

Euskal-eriko uriak, eŕialdeburu diranak eta Ebro ibai aldean daudenak kendu ezkerro, txikitxoak dira, naiz baseŕidun, naiz pilotuak izan; elizen inguruetaan bakaŕik bizitegi-moŕdoskak ikusi leikez, eta bizitegi auek, basetxeak bezela izenak dituzte, etxekuen jatorriko etxet atik aŕtuak askotan. Maiz eleizaren ezaŕkeran egoten da etxe oien eta urbileko baseŕien izenen etorkuna: *Elizalde* (Elduayen'en, Zizurkil'en, Zuma-

ya'ko Aríadi'n, Azpeitia'n, Andoain'en, Bergara'n, Aretxabaleta'n, Oñati'n, Ezkirotz'en, Gañalda'n, Aria'n, Aezkoa'ko Iriberi'n...), *Elizaldetxo* (Azpeitia'n...), *Elexaga* (Laíabetza'n..), *Elexalde* (Beotegi'n, Aramayo'n, Orozko'ko Urgoiti'n, Arakaldo'n, Mañaria'n...), *Lezalde* (Lanteno'n...), *Elizaldea* (Lekarotz'en, Elbetea'n, Elizondo'n, Arizkun'en, Árayotz'en, Ezkuña'n, Beintza-Labayen'en, Azkarate'n, Intza'n, Bera'n, Berruete'n, Donamaria'n...), *Elizaldia* (Ezpeleta'n, Askain'en...), *Elizanire* (Mutiloa'n...), *Elizazubia* (Lekarotz'en...), *Elizondo* (Zizurkil'en, Gipuzkoa'ko Ibarra'n, Andoain'en, Tolosa'n, Ataun'en, Aezkoa'ko Iribéri'n, Uztugi'n...), *Elizondoa* (Zugáramurdi'n, Aritz'e'n...), *Elizondobería* (Eratzu'n...), *Leskuren* (Gueñes'en...), *Elizamendia* (Gañzain'en...), *Elexpiti* (Murueta'n...), *Elixabehere* (Luzaide'n...), *Elexabe* (Aretxabaleta'n...), *Elizpuzua* (Betelu'n...), *Elizaburu* (Eaurta'n...), *Elizburuaundia* (Uztugi'n...), *Elexpuru* (Beriatua'n...), *Elizegia* (Lekarotz'en...), *Eleizegi* (Amezketa'n, Alegi'n...), *Elizabide* (Maule'n...), *Elizabidia* (Kanbo'n...), *Ejizaga* (Eugi'n...), *Elexaga* (Zeanuri'n...), *Elizagarai* (Árbendaritze'n...), *Eleizagarai* (Amezketa'n, Aretxabaleta'n, Bunuze'n...), *Elizagarate* (Andoain'en...), *Elexoste* (Aramayo'n...), *Elexoste-bekoa*, —*erdiako* (Aretxabaleta'n). Eleizak badituzte etxaguntzak eleiz-gizonen bizitokiak diranak: *Elizetxea* (Naibarre'n, Napaño'a'ko Gaintza'n, Napaño'a'ko Gaztelu'n, Ainhize Mondolose'n, Uharte-hiri'n, Irurita'n, Eratzu'n, Elbetea'n, Oyeregi'n, Oronotz'en, Árayotz'en, Zugáramurdi'n, Gañzain'en...), *Apezarena* (Ustaritz'e'n, Garayoa'n, Orio'n...), *Aphezarena* (Sara'n...), *Apezena* (Lantze'n, Etxaleku'n, Orokieta'n...), *Apezenea* (Mugiro'n, Arezo'n, Arano'n, Aranatz'en, Latasa'n, Bera'n, Doneztehane'n, Oitz'en,

Afayotz'en, Arizkun'en...), *Apezerena* (Zia'n...), *Apezenetxea* (Zozaya'n...), *Apezetxea* (Irurita'n, Leazkue'n...), *Apezanekua* (Ergoyena'ko Dorau'n...), *Abadene* (Mungia-Bakio bitarítean...), *Abadetxea* (Amoroto'n...), *Abatetxe* (Ubidea'n, Elgoiba'r'en...), *Bikarioenea* (Oriyo'n...), *Bikarionea* (Lezaka'n...), *Bikarienea* (Goizueta'n...), *Bikarioetxe* (Ataun'en...), *Bikaritegi* (Donostia'ko Zubieto'n...), *Bikariozanarékoa* (Etxari-Aranatz'en), *Bereteeretxe* (Ainhize-Mondolose'n...), *Eretoretxea* (Lekarotz'en, Beizama'n...), *Eretoraenia* (Laázabale'n...), *Eretoranea* (Ératzu'n...), *Ertoínea* (Amenduze'n...), *Elizainzinea* (Arizkun'en...), *Elizaitzina* (Arueta'n...), *Kapelania* (Gaítzain'en...), *Koajutorenea* (Amezketa'n...), *Apaztegi* (Ezkioga'n...), *Apaiztegi* (Astigarraga'n, Alkitza'n...), *Apategi* (Aizarna'n...), *Apeztegi* (Ezpeleta'n, Anhauze'n, Oíbara'n...), *Apaiztegia* (Berastegi'n...), *Apeztegia* (Ératzu'n, Gaíalda'n, Atalo'n, Belatu'n, Bera'n, Eribit'i'n, Narbarité'n...), *Apheztegia* (Sara'n...). Vinson'ek *Apheztegi* hauz-apezen bizitegia dala esaten du—*demeure de l'abbé (laïque...)* (1) —. Prantzia'ko euskaldunen artean *hauz-apeza* gure alkate edo ugaldunen antzeko agintari bat zan (2); noiz edo bein Vinson'en iritzia egiazkoia izatea baliteke; baña nik ikasi detanez *Apeztegi*'k Bidasoa'tik aruntz Bidasoa'tik onuntz bezela adierazo nai du geienetan. Eleizako mirabien etxeai deitzen zaiote:

(1) VINSON, *loc. cit.* 552 of.

(2) «Les Basques ne crurent pas mieux faire qu'en confiant la garde de leurs antiques libertés à l'autorité chargée du dépôt de leurs croyances religieuses. Cet usage de confier par délégation le pouvoir civil à l'abbé de la paroisse (*hauz-apeza*) passa tellement dans les moeurs du pays, que, même après la substitution des laïques aux clériaux, le nom d'*abbé* désigna l'officier civil jusqu'à l'édit de 1767. Aujourd'hui même, le nom de *hauz-apeza* est aussi souvent employé parmi les Basques que celui de «maire» (*major*) pour désigner l'officier civil. — *Recherches historiques sus le Pays Basque, par l'abbé P. HARISTOUY. Bayonne-Paris, 1883, 18°. id. 134 of.*

*Sakristaukua* (Amoroto'n, Elorio'n...), *Sakristabanekoa* (Unanua'n...), *Padaretxe* (Oñati'n...), *Seroetxea* (Gipuzkoako Gaintza'n...), *Seroraetxea* (Elorio'n...), *Serotegi* (Aduna'n, Aya'n, Aizarna'n...), *Serotegia* (Naŕbaite'n, Arizkun'en...), *Serorategi* (Mugere'n...), *Seroretegi* (Aizarnazabal'en...), *Seroretegia* (Gaintza'n, Azkarate'n, Aŕiba'n, Napaŕoa'ko Gaintza'n...), *Serorena* (Betelu'n...), *Seronenea* (Elizondo'n...), *Serorenea* (Donamaria'n, Naŕbaite'n...). Eleiz-mirabe emakumeak egikizun aundiak zituzten lenago, ez eleiz-nagusietan bakaŕik baita baselizetan ere; lekaimeak bezela bizi ziran.

Orain agertuko ditugun izen asko naiz basefienak izan urietakoakin pilotuak joan bearko dute, ogibideak adierazten dituztenak batez ere; ugari dira onelakoak baita ere etxearen etorkizuna edo ezaŕkera erakusten dutenak. Ala deitzen diote: udalena danari edo izan danari *Konzejir-etxe* (Aizarnazabal'en..), *Eŕikoetxea* (Eŕatzu'n, Goizueta'n...), *Eŕikoetxe-beŕi,-gibela,-zaŕa* (Elizondo'n), *Eŕia-baita* (Elgoŕiaga'n..), *Baleko-etxea* (Elizondo'n...); landeretxeari *Ospitalia* (Zugaŕamuŕdi'n, Amizkutse'ko Donemigel'en, Irisari'n...), *Ospitalenea* (Elizondo'n...); espetxeari *Kaŕtzela-zaŕa* (Bilabona'n...); sendagilea bizi dan etxeari *Medikorena* (Oriyo'n...); sendakitegiari *Beko-Botika* (Oyaŕtzun'en); ikastetxeari *Eskoletxea* (Zugaŕamuŕdi'n, Gartzain'en, Lekarotz'en...), *Eskolazaŕa* (Gaŕtzain'en...); ikaslararen bizitegiari *Maestronekoia* (Etxari-Aranatz'en...), *Maestruenea* (Eŕatzu'n...), *Maistronea* (Irurita'n, Elbetea'n...), *Maistruarena* (Arizkun'en...), *Maisuenea* (Gaŕtzain'en...), *Maistorenai* (Egiaŕeta'n...), *Maixuenea* (Gipuzkoako Gaintza'n...), *Maitzuzaŕa* (Burgi'n), *Maistrutxonea* (Goizueta'n); jolastokiari *Bolaleku* (Eŕezil'en), *Eŕebote-etxea* (Irurita'n);

enparantzan edo enparantza aldian ezaritzen dan bizilekuari *Plaza* (Zugarramurdi'n, Almandotz'en...), *Plazaetxe* (Igeldo'n...), *Goiko-Plaza* (Laudio'n), *Plazabarrena* (Aizarnazabal'en...); kalean edo kale-muturian dagonari *Kalea* (Gipuzkoako Gainza'n...), *Kalebarrena* (Luyando'n...), *Karika* (Eaurta'n, Espaiza'n, Uŕnieta'n...), *Karikaburua* (Luzai-de'n...), *Kantoi* (Erezil'en...), *Kantoikoa* (Idiazabal'en, Zumaya'n...); aroztetxeari *Benta*, —*berria*, —*zaŕea* (Gaŕtzain'en), *Bentaberri* (Naŕbaŕte'n...), *Bentaberria* (Árayotz'en...), *Bentazarra* (Mugaire'n...), *Bentatxuri* (Otxandio'n...), *Ostatu* (Lekarotz'en...), *Ostatua* (Elbetea'n...), *Ostatuzaŕa* (Aya'n, Zoŕnotza'n...), *Ostatuberri* (Bera'n...), *Ostatuenea* (Goizueta'n...), *Beiti-kostatua* (Olague'n...); ardangelari *Ardandegia* (Elezondo'n...), *Aŕdandeginea* (Lezaka'n...), *Taberna-zaŕ* (Azantza'n...), *Taberna-zaŕa* (Itzia'r'en...), *Taberna-zaŕea* (Zilbeti'n...); sagardoa egiten dan etxeari *Dolarea* (Beintza-Labayen'en, Zugarramurdi'n, Amanyur'en, Doneztebe'n, Naŕbaŕte'n, Árayotz'en, Arizkun'en...), *Dolarea*, *Dolagaraya*, *Dolantxea* (Irurita'n), *Dolaetxea* (Arizkun'en...), *Dolaretxe* (Begoñia'n...), *Dolatxea*, *Dolatxe-etxeberri* (Elizondo'n), *Dolareta* (Árayotz'en, Oronotz'en...), *Tolare* (Oyaritzun'en...), *Tolarea* (Areso'n, Goizueta'n...), *Tolaretxea* (Elgoiaga'n...), *Tolareta* (Donamaria'n...); saleroritzako tokiarri *Dendaberri* (Ataun'en Uŕnieta'n...), *Dendanea* (Laŕaun'go Lekunberri'n...); fuñ-fuñ jotzailearen bizitegiari *Tanborin* (Uŕtzainki'n...), *Danbolin* (Egiaŕeta'n, Uarite'n...), *Danboliňea* (Uŕotz'en, Azantz'a'n...), *Danboliňenea* (Lantze'n, Elizondo'n...), *Danborinarena* (Garalda'n...), *Danbolinzaŕanekoa* (Unanua'n...), *Danbolintxo* (Goizueta'n...), *Txanbolea* (Uŕnieta'n...); aŕilangileanari *Argina* (Espaŕta'

n...), *Argin*, —*beri* (Aya'n), *Árgingua* (Motriku'n...), *Árgintxoa* (Mendata'n...), *Árgiñano* (Afazuri'n...), *Árgintzano* (Lazkao'n...), *Árgindegi* (Erezil'en, Anoeta'n, Ezkioga'n, Eñnani'n...), *Árgindearítxetxe* (Gipuzkoako Ibaia'n...), *Árgiñaaenekoa* (Etxari-Aranatz'en...), *Árgiñanea* (Erezil'en...), *Árginerena* (Bera'n, Eñatzu'n, Elizondo'n, Elbetea'n...), *Árgiñene* (Oyaritzun'en, Gautegitz'en...), *Árgiñena* (Oñati'n, Iantzi'n, Zolina'n...), *Árgiñenea* (Leaburu'n, Lekarotz'en, Irurita'n, Urdazuri'n, Erasun'en, Donamaria'n, Oronotz'en, Narbarte'n...), *Árgiñarena* (Gaialda'n, Amayur'en...), *Árginerena* (Anoziba'r'en, Arteta'n...), *Argiñerena* (Napaoa'ko Zubietan...), *Árgintxobaita* (Bera'n...); zuarozkintzako lantegiari *Sutegi*, —*txiki* (Ataun'en), *Sutegia* (Urdazuri'n, Zugarálmurdi'n, Elizondo'n, Lekarotz'en...), *Sutegizaŕ* (Goizueta'n...), *Suteigañea* (Irurita'n...), *Eŕmentegia* (Aezkoako Iriberry'n...), *Eŕmentaldegi* (Okiya'n...), *Rementaldegia* (Beintza-Labayen'en, Azkarate'n, Áriba'n, Betelu'n, Areso'n, Iantz'i'n...), *Rementeriabaita* (Aranatz'en...), *Rementeriako* (Laudio'n...), *Eŕmentari-zaŕa* (Zorrotza'n...), *Arotx* (Garayo'a'n...), *Arotxa* (Mañeru'n, Olague'n...), *Arostegi* (Donegratzi'n, Abauregaina'n, Aezkoako Iriberry'n...), *Arostegia* (Irurita'n, Araitz'en, Urdazuri'n, Bera'n...), *Aroztegia* (Eñatzu'n, Lekarotz'en...), *Arozetxea* (Elizondo'n...), *Arotzena* (Latasa'n...), *Arotzarena* (Gaialda'n, Amayur'en, Napaoa'ko Zubietan, Azantza'n, Larunbe'n, Eñatzu'n, Abauregaina'n...), *Arotzanea* (Orokieta'n, Beruete'n, laben'en...), *Arotzenea* (Irurita'n, Elizondo'n, Arayotz'en, Urdazuri'n, Elbetea'n, Narbarte'n, Mugiro'n, Oronotz'en, Oyeregina'n...), *Arotzenia* (Iantzi'n...), *Arotsenia* (Iatsu'n...), *Arotsaenia* (Laiaun'go Lekunberri'n...); zurgiñen biziokiari *Zúrgina* (Garayo'a'n...), *Zúrgiñarena* (Itxa-

so'n...), *Zurgiñenea* (Áruitz'en, Irurita'n, Iruritzun'en...), *Aroztegi* (Lumo'n, Azpeitia'n...), *Arotzena* (Oyaátzun'en, Oñati'n...), *Arotzanea* (Beróbi'n...); *zamaígiñenari* *Zamaígin* (Ekai'n...), *Zamaígiñenea* (Arakil'ko Etxaéren'en, Oderitz'en...), *Zamaígiñena* (Intza'n, Etxaleku'n...), *Zamaíginena* (Beuntza'n...), *Zamaígilenea* (Elbetea'n, Irurita'n...); *jostundegiari* *Jostundegi* (Legoréta'n...), *Sastrekoa* (Napañoa'ko Zubiet'a'n...), *Sasternea* (Zugaáamuúdi'n, Elizondo'n, Irurita'n...), *Sasternea* (Urdazuri'n...), *Sastrínea* (Eíatzu'n, Naábarité'n...), *Sastrerena* (Árdaitz'en, Ziaurítz'en...), *Sastrearena* (Azantza'n, Garayoa'n, Oronotz'en...), *Sastreabaita* (Bera'n...), *Sastrienia* (Lezaka'n...), *Dendalgi* (Uánieta'n...), *Dendaritea* (Irurita'n...), *Dendarinea* (Ezkura'n...), *Dendarienea* (Árayotz'en, Elizondo'n...); eta ala *Labari* (Izitz'en, Saíes'en...), *Labeaga* (Galdakao'n...), *Labegoikoa* (Erezzil'en...), *Labalde* (Goizueta'n...), *Labekoa* (Aretxabaleta'n, Geániká'n...), *Labekoba* (Luyando'n...), *Labekoetxea* (Irun'en...), *Labetxe*, —txu (Mungia'n), *Eulenea* (Uánieta'n...), *Euntxena* (Olondriz'en...), *Eunzelerena* (Arakil'ko Iribéri'n...), *Zapatari* (Arano'n...), *Zapatagilenea* (Naábarité'n, Irurita'n, Gaátzain'en, Aranatz'en, Goldaratz'en...), *Zapatariarena* (Betelu'n...), *Zapatarinea* (Ezkura'n...), *Zapatariena* (Biuáun'en...), *Zapatañerena* (Árteta'n...), *Baáberetxe* (Ataun'en...), *Baáberenea* (Irurita'n, Elbetea'n, Amaryur'en, Uárdazuri'en, Arizkun'en, Oronotz'en, Oyeregí'n...), *Baáberania* (Ustaritze'n...), *Baáberena* (Gelbentzu'n...), *Baáberzaárena* (Olague'n...), *Baáberozaáneko* (Etxari-Aranatz'en), *Baáberitonea* (Elizondo'n...), *Arakiñenea* (Arano'n...), *Aragendegia* (Bera'n...), *Okinenea* (Eíatzu'n...), *Gasinea* (Gaátzain'en...), *Gasnenea* (Elizondo'n...), *Gupelategi* (Uáda-

dazuri'n), *Teleria* (Luzaide'n, Areso'n, Naibarre'n...), *Teleri-azpikoa*, —eŕdikoa (Ataun'en...), *Teleginenea* (Areso'n...), *Telletxea* (Zugarramurdi'n, Bera'n ..), *Zilargiñenea* (Doneztebe'n...), *Auntzaina* (Luzaide'n...), *Albaiterakua* (Aulestia'n.. ), *Albaitarianekoa* (Etxarí-Aranatz'en...), *Upain* (Oñati'n...), *Silerone*, *Auspakindegia*, *Txiribitilene* (Oyaritzun'en), *Kotxeroarena* (Zolina'n...), *Eskribanonea* (Astiasu'n...), *Eskribauenea* (Mutiloa'n), *Lizenziaduenea* (Oriyo'n...), *Letrauko* (Lekeitio'n...), *Almirantearena* (Garayoa'n...) (1), *Almirantenea* (Oriyo'n...), *Kapitanenea* (Eŕenderi'n...), *Zaldunarena* (Orikain'en, Eguares'en...), *Alkatezaŕeneko* (Unanue'n...). Oyaritzun'en kaleko etxen izenak aldatzen dira etxeak; ala eri aŕtan lenago *Patxikane* zan bizitegia, *Perminene* da gaur, eta aspaldiko *Beko-Botika*'ri, *Don Felizene* orain deitzen zaio.

Érdel-jatoria duten izenak edestu ditut; naiz ez txukunak izan, egokiyak dira. Ala geratzen da, beste askoren aŕtean, Zizurkil'ko *Portxeta* baseriakiñ. Izen au jakin-erazo ziran gizonari galduen nion:—¿Etxe ori arŕkupeduna (atarpeduna) alda?—Bai, erantzun zuan aŕek, *arkupe* oŕmatuak baditu Eta nerekiko esan nuen: ¿Nundik eta nola etofi ote zan Zizurkilaño *portxe* gaztelarezko itza? Oriyo'n bada bizitegi bat *Portxetaenea* deitua; Zizurkil'ko *Portxeta*'taŕen batek egiña izan liteke.

Garagaŕtza'n badira lau etxe *Karitzelakoa*, *Koŕeoka*, *Poŕtalekua* eta *Potxotxua* izendatuak. Gauŕ Árasate'ko auzategia dan eri txiki ori, quri aŕesiduna izan ote da noiz baiten? Alako itxura badu eta *Poŕta-*

(1) Napaŕoa'ko *almirantiak* ez ziran itxas-gizonak. Ikusi nere idazti *La vida civil y mercantil de los vascos a travéz de sus instituciones jurídicas*. San Sebastián 1923, 77 of.

*lekuak eta Potxotxua* izenak zetasun ari ikutzen dutela dirudi.

Guda-gerتاera ospatsuak euskal-etxentzat izen berriak ekaři dituzte: ala *Alkolea*, Motriku'n, *Troya*, Usurbi'l'en, *Sebastopol* Zumaya'n, Donostia'n Usurbi'l'en, Árasate'n, Tolosa'n, Alegi'n, Sokoa'n...; eři oietan euskaldundua agertzen da gauř itz ura: *Sagastipol* esaten diote.

Uřutiko uri-buruen izenak dituzten etxeak badira: *Paris*, *Londres*, *Babilonia*, Usurbi'l'en; *Karakas*, Zumaya'n, eta abař.

Done-izenak dituztenak, batzuek bai beñepein, noiz baiten baselizak izanak dira noski: *San Prudentzio* (Getaria'n), *Santesteban*, *Santurtze*, *San Bizente* (Gořdexola'n), *San Milan* (Zizuriči'l'en), *San Martin*, *San Juanzař* (Gatzaga'n), *Santa Klara* (Zumaya'n), *Santiago* (Irun'en, Donostia'n, Aya'n, Zumaya'n...); *Santiago* geienak ur eítzean daude; Konpostela'ko bidien gañean zeřbait ikasteko gauza ona izango da ořela izena duten bizitegien ezagutza.

Gizonen edo emakumien izenezko etxeak ere badira: *Juantxe* (Ero'n), *Filipitxo* (Orotz-Betelu'n), *Txalot*, *Txantxot-Txarlot*, *Santxot XVI* gařen eunkadan—(Eugi'n), *Perutxo* (Arano'n), *Fřanziskotxo* (Nagore'n), *Gilen* (Arakil'ko Etxeberi'n, Eaurta'n), *Grégorio* (Izitz'en), *Juan Migel*, *Juan Esteban* (Uarite'n), *Juan Beltrán* (Artieda'n), *Joakintxo* (Burgi'n), *Lorentx* (Auritze'n, Otxagabia'n), *Madalen* (Erigoiti'n), *Paskual* (Guesa'n), *Patxiko* (Zizuri-aundi'n), *Plazida* (Sara'n), *Txomintxiki* (Zestua'n), *Onpedro*, *Onroman* (Burgi'n), *Donperu* (Gipuzkoa'ko Ibařa'n, Beizama'n), *Santxo Garde* (Ustarotz'en), *Santxoyerito* (Gorde-xola'n).

Sařitako gauza da Euskal-eřiko luřalde batzuetan

—Napañoa'n batez ere—iraslia edo etxekua zein dan etxearen izenak agerítzea. Ez Napañoan bakařik, Pran-  
tzia'ko Euskal-Erian, Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n ere  
bai, ořelakoak baditugu, baña Bidasoa'tik onuntz  
urielan, ez baserietan; *Txminenea* edo *Antonenea*  
izendatuak mendiko bizitegi gutxi izango dira; Bida-  
soa eta Urumea'ko ubidētan zenbatu liteke batzuek  
ala ere. Azkue gure Euskaltzainburu jakintsuak uste  
du geritzen dala ori toki oietan etxeak pilotuak dau-  
delako eta baserai bezela izendatzea zaiňa dalako (1).

Izen oiek erakutsiko digute maiz etxearen jatorí  
zaŕa. ¿Zenbat Santxo eta Lope euskaldunak ote ditu-  
gu gaur? Txit gutxi; lenago ez, etxen izenak esaten  
dutenez: *Ansonea* (Elizondo'n), —*Anso*, *Antxo* eta  
*Santxo* berdin dira—*Ansorena* (Astrain'en, Uŕtasun'  
en, Burutain'en...), *Antxoenea* (Uŕnieta'n...), *Antxo-  
neña* (Zozaya'n...), *Antxonea*, *Antxonezaŕea* (Lekar-  
rotz'en), *Txantxorena* (Zubiri'n, Zia'n, Burutain'en...),  
*Txantxikonea* (Elizondo'n...), *Santxotenea* (Irun'en),  
*Santxorena* (Gulina'n...), *Santxoenea* (Eŕenderi'n...),  
*Santxinea* (Elbetea'n...), *Santxena* (Bidangotze'n...),  
*Sansetenea* (Elbetea'n...), *Txantxonekoa* (Unanua'n),  
*Lope-enea* (Ataun'en...), *Lopena* (Zestua'n...), *Lope-  
rena* (Aŕe'n, Sarasate'n, Zia'n, Uŕtasun'en, Eugi'n,  
Abauŕegaina'n, Aribé'n...), *Loperenea* (Aldatz'en...),  
*Lopitzxena* (Etulain'en...), *Lopitzonea* (Aldatz'en...).  
Beste antziñako izen batzuek badauzkate etxeak: *Iñoren-  
a* (Ekai'n, Gulina'ko Agiňaga'n...), *Enekonea*

(1) «En la tierra de Sancho el Grande son relativamente pocas las casas que tienen nombres propios descriptivos, por ser còmpactos casi todos sus poblados y difíciles por lo mismo de singular descripción; al paso que en otras regiones la dispersión de sus habitantes permite apreciar si están sobre el camino (*Bidegain*), bajo la peña (*Azpafern*), junto a la iglesia (*Elizondo*, *Elizalde*), en la planicie de una vega (*Ibarzabal*), en la espesura de un acebedo (*Gorosarí*), de un encinal (*Artesarí*), de un hayedo (*Pagasarí*), etc., etcétera.» *Morfología Vasca*, por RESURRECCIÓN MARÍA DE AZKUE. Bilbao, 1925, 118 cr.

(Irurita'n...), *Eŕnantena* (Zilbeti'n...), *Eŕnantenea* (Luzaide'n...), *Eŕnantonea* (Elizondo'n...), *Tristatenea*, *Gastonea* (Árayotz'en); izengain edo izengain-sustrai zaŕak ere bai: *Peritzena* (Eŕazkin'en...)—*Peritz* da Napaŕoa'ko len-lengo ageŕkaietan *Perez* gauŕkoa—, *Semekonea* (Elizondo'n...)-*Semen*'dik dator *Jimenez*.

*Ena* edo *enea* atzizkiaren bitaŕtez etxeko nagusi edo egoilearen izena ageŕtzen da geienetan; aien ezi-zena ere bai askotan: *Kojoenea*, *Momutzenea*, *Motzarena*...; edo beren ogibidearena: *Árgiñena*, *Arotzarena*, *Zamargiñena*...; jatoríko bizitegiarena bai ta ere: *Ituríotzenea*, *Otegienea*, *Iturburuena*... Nagusi batek etxe bi baditu, biak izen beŕdiňa eukitzea gerŕatu liteke: Aritzú'ko *Mitxerítxerena*'ren jabeak Olague'n erosi zuten etxe bat: *Mitxerítxerena* esaten diote one-ri ere.

Gure *ena* edo *enea*, *enia* da Prantzia'ko euskaldunentzat: *Joanoenia*, *Eskeŕenia*, *Harietenia* (Donibane Lohizun'en), *Bausenia* (Kanbo'n), *Indianoenia* (As-kain'en), *Morokurenia* (Laŕesoro'n), *Bidarátenia* (Ez-peleta'n), *Barberania* (Uztaritze'n), *Iribarňia* (Azpaŕ-ne'n), *Indarátenia* (Anhauze'n), *Ezpondaenia* (Oses'en), *Pełotipienia* (Donibane Garazi'n), *Arotsenia* (Jatsu'n), *Aŕbelenia* (Eiheralaŕe'n), *Bełokenia* (Gerezeta'n), *Mitxotenia* (Gaŕoze'n)... Luchaire'n iritziz *enia* Lapurdi'n esaten dute; beste Prantzia'ko euskal-luŕaldetan *baita* da atzizki aren ordeku (1). Nik jakin detanez Lapurdi'n eta Bidasoa'ren értzean dauden napaŕ-eŕi batzuetan darabilte *baita*. Donibane Lohizun'go kale mutuŕ batian aŕdangela bat dago; alde batetik idazkun au dauka: *Nun dago Piaríño-baita?*; eta bestetik au:

(1) «*Enia* est surtout répandu dans le Labourd. D'autres régions se servent de *baita* «chez», mais parfois aussi ces deux postpositions sont concurremment usitées dans une même localité».—*Études sur les idiomes pyrénéens de la région française*, par ACHILLE LUCHAIRE.—Paris, 1879, 153 or.

*Emen dago Piarriño-baita.* Piarriño'ren ardangela ori ospatsua izan bear du Donibane'n. Badira an *Urđin-baita*, *Urķixo-baita*, *Eleizalde-baita* eta abaŕ; eta Naparroa'n, *Panpará-baita*, *Maritxo-baita*... Bera'n, *Morón-baita*, *Otxoteko-baita*... Lezaka'n *Ameka-baita*, *Pablo-baita*... Donestebe'n. *Baita'k*, etxe adierazi nai du, L. L. Bonaparte'k esaten duanaz (1).

Eŕi askotan *ena*, *enea*, *enia* atzizkien órdaingoa *koa*, *kua* edo *gua* izaten da: *Benturakoa*, *Suŕakua*, *Pepetxikikoa*, *Ankuŕkua* (Antzuola'n), *Anpodokua*, *Arǵinguia* (Motriku'n), *Golpenekua*, *Laŕgonekua*, *Txitintxonenekua* (Getaria'n), *Txokolarokoa* (Legatz-pia'n), *Kantoikoa* (Idiazabal'en, Zumaya'n), *Beŕaondokua*, *Baltxongua*, *Jose martingua*, *Kalengua* (Elgeta'n), *Muŕgikoa* (Uŕuña'n), *Justenekua*, *Albaiterrakua* (Aulestia'n)... Etxari-Aranatz eta Eŕgoyena'n onelako izen asko dira: *Martxonekoia*, *Beŕnaenekoia*, *Juantxonekoia*, *Laŕtenekoa*, *Txaŕtxenekoa* (Etxari'n), *Etxeberíkoa*, *Txomiñenekua* (Lizaŕabengoa'n), *Sandonekua*, *Doŕaubarenekua*, *Aldonekua* (Unanue'n), *Zaŕberenekua*, *Ameztegikua* (Lizaŕaga'n), *Apezanekua*, *Peŕkixanekua* (Doŕau'n).

Etxearren izena aldakaitza izaten da; Oyaŕtzun'go kaleko geŕtaketa ez da maizkoa; noiz baiten jatoriko izena galdu gabe beria ártzen du etxeak etxekuaren izengoitifik. Ona ikasbide batzuek.

Árasate'ko *Mendi-azpikoa* baseíari *Taulero* esaten diote. ¿Badakizute zeŕgatik? Etxe oŕen azkeneko nagusiaren aitona ipui asko zekiena zan eta edeslari guztiz yayua: *Fabulero* ezizenez ipińi zioten bere urteideak; gizon onen seŕmea *Tablero* izan da danentzat eta biłoba *Taulero*; eta bizitegiak izengoiti abek ártu

(1) Ikusi LUCHAIRE, op. cit. 159 or.

ditu; *Fabulero* lenbizi, *Tablero* geroago, *Taulero* oraiñ.

Aŕasate'n ber tan, Garagaŕtza'ko auzotegian, *Inzegi-zabal* etxea dago; eun urte gutxigorabera izango dira an gizon zeŕbait ar duragabe bat bizi zala; mendi-ra joan zan beiñ ikatzkintzara eta sasi ga ean bere txama a utzi zuben; eta lanean ibili zan bitar tean auntz batek ukor de bat jan zion. O dutik *Manga* deitu zio-ten eta *Mangena* etxeari.

Aizaŕna'ko baseŕitar  batek geiegitxo edan zuen noski ta dinbidanba bazijoan alzuen eran etxe aldera;  lako batian erori zan eta oinkada bat ere eziñ emanik zegoen. Norbaitzuek joan ziran ari jaikitzen laguntzera eta auetako batek galdetu zion:— Ze?  zu ere *ala kat e* alzabiltza? *Kat e* esaten zaio gizon aren bizitegiari *Irabide* izendatua.

Gazteiz'ko igespidetik Prantzira zijoazen Napoleon'en gudalariak, *Zubikua* Antzuola'ko baseŕian eg aria zutela aito tu zuten; etxekoandre za rak esnea eske ni zien; zu ut on bat eranda gero gudamutil aie-tako batek geyago eskatu zuen ki nuak egi az eta *plus encore* esanaz; eta atxuak erantzun zion:— Ankur ? Prantzesai emoteko emondakua be naikua dok. *An-kur ua* da ordutik baseŕiaren izena.

Gatzaga'go *Lakitegi-txiki* eta *Olaun-bekoa* etxeai, *Tranpena* eta *Txoriyena* esaten diote, *T anpa* eta *Txoriya* izengoitziz ber tako gizonak izan zituztelako; eta beragatik Tolosa'ko *Ilaratzu'*ri, *Aldaba*; Murueta'ko *Beaskoetxe'*ri, *Txikerena*; Yureta'ko *Ibaiondo'*ri, *Kakatza*; Zizurki l'ko *Ilaratzota'*ri, *Motzane* eta abar.

Amaitzeko garaia ba da. Asieran esan dedana beríztuko det emen: aígaltxoa irudiko zaitzuela itzaldi au; epaitu nazazue asmo onagatik, nere aítegi makalagatik ez. Erein ditudan azi aleak luí oparoan zildu litekeanak dira; nik *ekin* det; *jarai* dezala ni baño tfebeagoa danen batek, Aita Lhande'n gogamen eder au aztu gabe: éuskaldunen egiazko mazmároa bere etxearen izena da; onek esaten du dana: antziñatasuna, lana, zindotasuna (1).

ETXEGARAI'TAÑ BONIFAZIO.

---

(1) «Le orai blason du Basque c'est le nom de sa maison: cela dit tout: antiquité, labeur, honneur...» LHANDE, op. cit. XXV or.

## **Etxegarai 'tar Bonifazio euskaltzain beri jaunaren itzaldia Erumon Intzagorai euskaltzain jaunak egin zion erantzumena**

Emen zaudeten guziyok, ongi dakizute: Bonifazio Etxegarai jauna Euskaltzain aukeratu dala, ta gaur datorkigula Euskaltzaindiaren etxe ospetsuan sartzera.

Entzun diyogu bere saérako itzaldi ederá, ta naiko txalo bildu ditu. Txalo oyek ordea, dar-dar jaí naute: lausotu zaizkit begiyak: adimena ere zerbait itzali zait, ta emen nagokitzute, itxaso asaíearen erdian, margul eta ito-bear dabilen arántzalea bezela: begi sutsu ta zorotzez, alde batera ta bestera begira. Izaíra nai, ta izañik ez: argi-txinta bat ikusi nai, ta guziya ilun: eguna opa, ta eguna urutí: oltza zar bat naikoa nuke arbin ontatik irteteko; bañan ez. Igeriyan edo nola nai, eutsi nai nuke nere soña uraren gañean.

¿Ez ote zan, Euskaltzaindian, ni baño gizon entzun eta jakintsuagorik, Etxegarai jaunari erantzuteko? Bai noski. ¿Ez ote zuen edozein euskaltzaiñek, nik bezin eder ta goreski itzaldi-erantzupen auxe mol-datuko? Baita ere. Bañan ni aukeratu naute, ta nik ez diyot arazo oni ukapenik erantzi nai; ezin nezakelako lenbizi, euskaltzaiña naiz - ta, ta bigaén, txikitako adiskide bati neronek erantzutea, egoki deritzadalako, naiz itzaldi ontan txotxabar ustel asko bildu.

Badiña bai, Euskaltzaindian, gizon jakintsu asko; bañan ez dute jakintsuak beti mai ederénetan jan bear: iñoz utzi bear zayo, medar ta zezela danari, alako

toki goifiya, ez noski berari dagokiyolako, bai ordea, aldiz-aldiz jakinduriyak baño geiyago, maitetasunak esan lezakelako, ta korapilo oni, eltzen diyon nik, estuardi ontan, zerbait ere belaondoa zuritu nai baldin badet.

Maitetasuna dakart; jakinduri gutxi; txiki ta beltx ta erdi-uŕetxindor ikusi ninduelako, Euskaltzaindiak eman zidan, bere Jauregi ederéan bizi-izateko eskubidea. Baldin adimen-baŕenak aztertu balizkit, xaŕantxa lepondoan jaŕi-ta, atariyan lotuko ninduen, edo bekañeko galanta jaurti-ta, satsetara bota.

Etorí naiz, asko maite dedan Zumayara: beti ernai, itxasondoan, bizi-bizi, apaŕa bezela, irazartzen dán eŕi maitera: Euskaleriko itxas-bazteŕean, ondar biguñaren gañean, apatx eta apatx urte ta mendeetan zoriontsu bizi dan urira, ta Euskaltzaindiaren izenean, agur maitetsu bat dagerkiyot.

Iñora uste biziz etortzekotan, onunz uste osoz gatoz euskaltzañok.

Amak semetxoak bere magalpean bezela, alaxe euki zituen Zumayak Etxegarai Karmelo ta Agirre Domingo, ta Zumayak ondotxo daki, oso gure-gureak zirala bi euskaltzale argitsu oyek. Gañera, Euskaleriko zantzoa dakargu, ta jaso bezait eŕi maite onek, gure biotzaren mami-mamitik, zirpuilik gabe, bereganotz dariyogun maitetasuna.

Jaso bai ta entzun...

\* \* \*

Txinguriya, gauza txiki ta maxkala izanaŕen, puska galantaren zale izaten da: etxe-ingurutan dabiltzan galtxori edo buŕiroyak, berak bezanbateko ogi pusjeta, mokuan isegi nai luteke. Neri beste ainbat gertatzen zait: txinguri, ta puska galantaren zale:

galtxori, ta mokoan otaza nai: ez dezute nere itzalditzen ezer ikusiko, txinguríyen anken dardaña baño.

Etxegarai jaunak naiko ta naiko ale eder jaurti dizkigu bere zugatzetik; nik mixpildu bear ditut surtara datozen gaztañak. Lan ederak dituzten euskaltzañak badira: oyen santzoa, euskal - idazkiyetan, oyanean edo basoan kukuarena bezelaxe da: entzungari ta gozoa, zugatz eta alor guzitan, intza bezela, erazten dan oyua.

Kukuak umeak egin omen zituen, ta gorde gorde-rik ipiñi, berak bakařik zekiyen toki eskutuan... Amilotxak toki gordea asma, ta bertan, maxke-maxkel zetzaten umeak, jan zizkiyon. Kuku gaxoak etzuen geroztik zorionik izan:

Ora or goiko  
arixtitxo baten,  
kukuak umeak  
egin yozak aurten:  
kukuak egin,  
amilotxak jan:  
jauxé bere kukuaren  
zoritxaña zan!

Bonifazio Etxegarai jauna itzaldi bikañez apaindua etori zaigu. Bere kukualdiko lan edo umiak auŕez-aúrez igaro zaizkigu: aiňbeste baseri izen, aiňbeste txoko ta toki maitagarrien xeŕenda!

Etxegarai-en aurétik, gure lankide argitsu Eleizalde zanak, umetaldi eder ta ugariya erditu zuen, ta or dabiltz, bata ta beste, bere izerdi adoretsuak eragindako kukutxuak. ¿Amilotxak jango ote ditu? Ez nuke nai iñolaz: orduan bai esan genezakela: jauxé bere kukuarren zoritxaña zan!

Bonifazio Etxegarai jaunak beste izen asko bildu ditu, ta gañera, zertatik eta argatik datozen izen oyek,

bere itzaldi mamitsuan azaldu digu. Ez da alper ibili: Euskaleriya, alde guzitistik zeaztu du, ta iñondoko izenik kufunenak ekaři dizkigu, erleak luzaroan, lore artean, biltzen duen eztioratzi balira bezela, gure abo zapaloen gozagari.

Erlea beti maitagarriya da: erleak biltzen ditu, bere eztenaz, lili guziyetatik, lore-zukoak: txuri, goři, orि, aře ta laruetatik; bañan osoro minkatz mokopean da-karzkiyen meyak, guziyak abarazkan ipintzen ditu, gozo-gozo. Berdin Etxegarai jaunak, abarazka batean ekaři dizkigu gozo zaizkigun izenak, bañan agiyan mertxilki zebiltzanak, bayean iraisi baño lenago.

Beřiz dasaizuet: ez niyon nik erantzun bear: base-txe ta tokizenak bildu ta aztertzeko neroni gauz ez naizelako: geyen-geyenaz jo-ta, *Ategori* esango nuke; ta arantza-leak esan oi dutenez, baldin txautxa ur-bazteorean sortu ta iltzen bada, sei ilabete baru, txautxa-artean ibiltzeko bezanbateko uařua dakart; ez beneptein neri luzeagorik eskatu.

Bonifazio jauna, aspaldiko adiskide maitea det: ta adiskidetasuna zerbait bazala-ta, neri egotzi dizkidate itzaldi-erantzupenaren txorabiyuak.

\* \* \*

¡Erantzun bear onek, onek ematen dizkit estualdi petralenak! Neronek gutxi jakin: beste aldez gutxi ibiliya naiz, ta Etxegarai jaunak egin duen lan edera egitekotan, asko jakin ta ibili bear da. Ongi ibili da: ez du bazterik utzi, Euskaleriko usai gozorik, an eta emen, usmařu gabe, ta ořetxegatik noski, menditik datořen garo-orgaren usai gozoa bere itzaldiyak ugari dakin.

Biarnon ere izan da, ta andik ekaři dizkigu euskal-

-izen usaitsu abek: *Azpilda, Nabartzি, Gazteluberi, Aitzeger, Mendiondo, Aizaberি.*

Etxegarai-en izen-talde luze orek Euskaleriya gorresten du, ta berau, beste edozein efiyen aurez aurkezteko iyoldia, lakarika dakar.

Beste eritaldeak aztertu litezke, ta iñork ez du gureak añaako adore izan, bizitoki diran etxeak izendatzeko. Zoazte an barena zear: ango naba, ordeka ta larín luzeak igaro itzazute; ez dezute basetxe asko idoroko; ta aldamenez dabiltzan laisa ta ereakatxoak, mara-mara beren urak ixurika, izenik gabe dijoaz. Izango zituzten iñoi, bañan astu dira. Mendiak ere beste ainbeste gertatu zaye, ta geyen-geyen ezagutzen ditugunak, edestiyetan lero-leroz aipatu-ta datoaz.

Edozein gizonek inguru dabilzkiyon gauzak maitaro izendatzen dituenean, oyetarozko maitetasuna bezanbat aitortzen du. Gure asabak luáldea asko maite zutela, edozein ukalondotik ageri da. Lur utsak ordea ez du zoramenik, aldamenez eureka edo itxaso, edo mendi, edo basoa auzotar maitetsu ez badu. Jainkoak gain-gaiñeko luáldea eskuratu digu: itxasoa bertan daukagu: ibai ta ereakatxoak, emakume marats baten buruko eretena bezin garbi, oyanean beruntz datozkigu, Euskaleriko adats ederéan; mendi aberatsak ure. Ta ainbeste basetxe diran luáldean, ezin izan zitekean lur-mokoru bat ere izenik gabe: mintzak zerion izen ederá bazter guzitan artzitu zan. Etxea zala-ta: *Aretxe, Ibañetxe, Etxenagusi, Bordatxuri Lapuñetxe.* Ibai eta ituriya zala-ta: *Ualde, Ugalde, Ubañenea, Ituríta, Iturburu, Iturtxoko, Eureka, Erekalde.* Zubia zala ta: *Arzubi, Arazubi, Arzubiaga, Zubialde, Zubiaurre.* Ihara, boli edo erota zala-ta: *Igara, Aizerota, Erotaburu, Bolibar, Bolinaga, Bolueta, Bolunburu.* Bidea zala-ta: *Altzubide, Arbelbi-*

*dia, Bidegain, Arbide, Añozpide, Landerbide.* Luña edo lañña zala-ta: *Zelaya, Bañensoro, Goikosolo, Baratzategui, Larain, Larunbe.* Auzoa zala-ta: *Auzoetxe, Auzokalte.* Aitz edo arkaitza zala-ta: *Aizpe, Axpe, Aizpuru, Atxeta, Arkaitzaga, Atxuriondo, Argorizar, Arluzea.* Basoa zala-ta: *Baútibaso, Basobeltz, Basabe, Basetxe, Basagoyen.* Zugatzak zirala-ta: *Aretxabala, Arizpea, Ametzola, Amezti, Artadi, Arteaga, Pagarte, Pagasondo, Lizarburu, Lizargarate, Elormendi, Elordui, Agiñegi, Agiñasaletxe, Agiñagalde, Gorostiaga, Gorostarzu, Altzaga, Uresti, Urreztarazu, Gaztañádi, Morkoztegi, Albitzuri, Urkidizar.*

Ta ez ditut tokiyetako izenak aipatu, basetxe edo baseziyenak baño. Tokizenetan asiko banitz, ez nuke zortzi egunean amaituko. Aipatu ditudan izenak Etxegarai jaunaren itzaldikoak dira: ez det nere alorétil ezer ekaři.

Arazoak ere eman oi ziyozen izena, nagusiyaren edo arazodunaren etxeari: ageri dira: *Tolaretxe, Argiñenea, Zamargiñenea, Zapatagilenea, Maisuenea, Serorategi, Maizterena.*

Eři aundiyen izen erbestařak badabiltz banan-baña-ka: *Sebastopol* dakar Etxegarai-ek: beronek jakin lezake, badirala Altzako gañean: *Tuniz, Londres, Arjel-aundi ta Arjel Etxeberi;* ta Usurbil'en ez da noski aipu gabeko etxea, plazaren erdiyan ageri-agéri dagon París.

Giza-izenak ere banaturik dabiltz: *Perutxo, Pelipene, Txantxorena, Txantxo - efeka, Antxonea, Txantxinea,* ta noski ongi ezaguna Donibane Lohizun *Piařinoren baita.*

Izengoiti edo izunak zerbařit jaři digute basetxetan: *Taulero, Katre ta Ankurkua* dakarzki Etxegarai-ek.

Gure arantzaileak aberats eta etxejabe izan balira, bagenituen onezkerro: *Jainkomaitia, Axukre, Batsamára, Atraka, Mixkirix, Mielka, Txardieta ta Lanbaza*. Jakin nai nuke nondik ote datozen emen bertan Zumaya'n: *Txotxa-apaindu, Urtaiangoa, Kaldes ta Tantanenekoa.*

\* \* \*

Gure *toponimia* geyen-geyentsu lurkóra da. Luréko adatsetik zinzilik ez dauden izenak, gutxi dira: ta gutxi abek, edo etxe edo gaztelu edo jauregi-en batean kabiya daukate: beste batzuek *labe-ola-igara*-tik sortuak dator; beste batzuek Elizaren babesean goxogoxo bizi dira.

Tokizenak, nolaz idatzi alaz geyenean gugana dator, ta eriyak darabilzkinetatik idazkuntzakoetara, aldakuntza izan oi da. Ara zer diyon Kanpion gure lankide jakintsu jaunak. «Tokizen bat idazkiyetatik jasoa, non edo non ezarri nai danean, aldamenean jaŕi bear zayo, eriak abož daramana». Eriyak *Munaríz* ta *Mendilorí* maiz ekartzen ditu, ta antziñako idaztiyak dakartenez, *Amunaŕiz* ta *Mendielorí* dira.

Gertatu liteke, eriyak darabilkiyen izena ta idazkuntzakoa biyak osoro aldatuak etortzea, batere antzik gabe, ez arpegi, ez azal ta ez jantziyez. *Otxagabia* idazten da, *Otxagi* esan oi da. *Jaurieta*, idatzi ezkerro, *Jaurka* beriz aboz. *Oŕeaga* ez da izen bakaŕez ibili: *Oyaría* ta *Goería* zala esan digute.

Badago ortaz naiko lan. Tokizenetan bertan nai-koia sorfzen zayo Euskaltzaindiari. Izen da izenak apalean bildu litezke, bañian apaleko guziyak ez dira senide, aurkide izanaŕen. Senide diranak etxe batean bildu bear dira, ta etxe asko eragiten diranean, orduan igaŕi genezake, zenbat ataletatik sortuak diran tokizen eder eta egoki oyek.

Senideak ez dira alkaréen gainka jaí bear; *aurizki*, *artizki*, *atzizki* ta *alkarekiko* erazkiz datozena bada-kigu. Oñela izan liteke berezipen alde bat.

Ez dira abek alpeñikako lanak. *Scientia, ordenatio rerum scitarum* omen da, ta guk, ain garbi, ituñikoa ur leyañak bezala, jasotzen ditugun izen abek, buru ta jakinduriz mañan jaí bear ditugu, beste eñialdeak egin dutena, berdin eta tajuz egin dezagun, ta ainbesteren gurekiko esamez galgaña ziaro uldu ta kendu.

A atzizkiya da, ta tokiyaren bakana esan nai omen du: *Aran, ibar* aditzen ditugu, bañan bakanago noski: *Arana ta Ibaña*.

A ori beste gedin edo *vocalak* ordezten omen dute: *Igozkue, Azkue, Arano, Elorrio, Lizaru*. Badu a onek laguntzaile aberatsa: *ti: Arizti, Ariztia, Ametzti, Ameztia*. Beste lengusu bat ere bai: *zu: Ametz, Ametzu, Ametzua; Elo, Elotzu, Elotzua*.

*Aga-* atzizkiak zenbat senide-talde pixtu ez ditu? *Latsaga, Olatzaga, Elorriaga, Makatsaga, Usandizaga, Kareaga* ta asiko banintz guziyak lokañian jartzen, Gipuzkoa berari zanko-lokañi edera egingo niyoke.

*Keta* ta *eta* k-abek ere berebiziko senide-taldea ekañi digute: *Arieta, Goronaeta, Amezketa, Abaltzizketa, Gaintxurizketa*.

Gure *toponimiaren* sorkera, geyen geyenean, ize-nen alkarekiko erazpena da. Ala diyote Azkue eta Kanpion gure lankide maiteak. Eraspen onen lenbizi-ko mañan jaí genezazkike: *zugatz, landare* ta *lili* izenak: *aritz, sagar, iñar, gorosti*. Bigañen mañan, luñaldeak berez dauzkan gauzak: *aitz, bizkar, egi, buru, aran, ibar, lañe, leor*. Irugañen mañan urez murgilduak: *ibai, eñeka, elur, iturí*. Laugañen mañan egoera adierazten dutenak: *alde, arte, be-*. Bosgañen

mañan zenbat *margo* edo neurí adierazten dutenak: *bi*, *goñi*, *txuri*, *luze*, *zabal* ta seigañen mañan etxe ta ingurukoak: *etxe*, *bide*, *eiher*, *iri*, *eliz*, *muga*, *ol*, *zubi*.

Izen abek noski onela ataltzen dira: Izen, *aurizki*, *artizki* edo *atzizkiakin*: *Zubieta*, *Laŕondo*, *Ibaŕeta*, *Landatxo*, *Zumeldi* ta *Arizti*. Bi izen alkari erantzi-ta: *Bidetxe*, *Ibarzulo*, *Basaran*, *Lapurtxulo*. Bi izen, bat nagusi ta bestea zendiña (sustantivo y adjetivo) *Etxeberi*, *Oyanbeltz*, *Mendizorrotz*, *Atxuri*, *Ubero*, *Zarauts*, *Pagadizabal*. Abek atzizkiakin: *Bidetxeta*, *Uberotegi*, *Txakurtxoloeta*. Ta iru izen ere orpoz-orpo: *Altzibarbaso*, *Beŕobituri*, *Erotetxezubi*, *Atxelandarbaso*.

Gure Euskaltzainburua ikutzen ditu bere *Morfología* ederéan arlo abek, eta ara zer dion: Toponimia deitzen dan arloan ez datorkigu aditza (verbo) beñiere langile. Morfologiako beste atalak ordea, langile purukatuak dira: *composición*, *derivación*, *declinación* bañan areago lenbiziko orixe (composición). Baztar geyenak izenez oretxek bete dizkigu.

*Eta ez da Azkue jaunarenzat atzizkiya, artizkia baño.* Ta gauza bikaña iragartzen digu. Itxaseŕi batean, bere erderazko izena *Robles* euskeratu nai zuten, ta *Ariztak* ipiñi ziyyeten izentzat. Etszekiten noski, diyo Azkue jaunak, *Arizketa* edefaren beri.

Badira gure toponimian ulketak: *N* ultzen zaigu euskaldun askoren aboan: *Lemona*, *Lemua* dator; *Zestona*, *Zestua*; *Árona*, *Árua*. Aldakuntzak ere bai: *rz*, *rtz*, *ts* egin oi ditugu: *Ortzirala*, *ostirala*; *Sagartsa*, *Sagasta* ta *Ayertza*, *Ayesta* noski.

Ta jaŕaitzen du Azkue jaunak—Urte askoko bizialdiya Jainkoak Eleizalde guré lankide maiteari eman bezayo—Eleizalde jauna zeruan da. Jainkoak bere

altsoan jaso zuen. Aren ordez Etxegarai Karmelo elorízan, Karmeloren ordez Bonifazio datorkigu.

\* \* \*

Ordu dalako, beroni ongi-etoríya eman nai, diyot. Emen, Zumaya'n jayua da berau, emen sortu ta aziya, ta ezin lezake Zumaya'k Etxegaraitařik aztu.

Euskerak ziñez maite ditu Etxegaraitařak, ainbeste lan bere alde, egin dutelako; ta abek dirala-ta, Euskera bera asko goresten baldin bada, ez dabil atzetik Zumaya bera. Etxegarai ta Zumaya, bat batez bezela, luza-roan ibili dira. Zumaya ama zan: Etxegaraitařak semeak, ta seme onak bezela, irabasten zuten guziya, amari igortzen ziyoten.

Ez du Zumaya'k Etxegaraitařik aztuko. Bonifazio-rentzat jai eder bat gertu degu, ta ontan etzuen Zumaya'k gibel ta zear egon bear. Euskaltzañok, Bonifazio lankidetzat aukeratu-ta, Zumayara gatoz, beronek jaři dezayon semeari, euskaltzain-lanerako, biyotzaren gañean-bear duen lenbiziko mintza.

Jaso bezait Etxegarai jaunak Euskaltzaindiaren ongi-etoríya. Euskaltzaingorako ořen izena aipatu bat, beriala ořatzak zuzen jaři ziran, agiyan batera ta bes-tera urduri-xamar zebiltzan ořatzak.

Ez daukagu azturik, ořen anai Karmelo zañaren sa-řaldiya: Azpeiti'n izan zan jai eder ura. Itzaldi eder bat Karmelo'k egin ondoren, sutsu ta bizkor erantzun ziyon ainbeste maite degun Eguskitza gure lankideak, ta abegi onenaz, Euskaltzainkideak esku bigun ura estutu ziyoten.

Iñork etzekiyan gerora zer gerta zitekean: ez dira etorkizuneko gauzak gizonen eskualdira jeixten; ta ez ditu ikusi, danik ere begirik zořotzenak, etorkizuneko maipean zužpertu nairik dabiltzan gauzak: batzuek

pozgarí datozkigu; besteak mingarí: mingarí etorí zitzaigun Karmelo'ren ilberiña, ta naigabeak menperatu ginduen txanda luzez.

Ez ditu berialakoan arintzen opatxurák, zura gañean diran malkar eta akatsak: zurgiñak ongi daki gauz onen berí. Guk ere ongi dakigu, Karmelo'ren eriyotzak egindako malkorák ez dirala berialakoan arintzen. Etxuen Euskaltzaindian luzaroko egunik igarro: sartu bezin laxter, irten zitzaigun, ta ildakoaren utsuna bete bear zan. Ez da emen langile gabeko txablik: euskeraren mendian onuntz eta aruntz gabiltzan artzayak gera, ta alderdi guziyetarontz ibili bear degu zaimena. Bonifazio, ¿zein egokiyago, zu baño, anayaren orde? ¿Zein ate jo bear genuen, generaman arazoari ongi erantzutekotan? Ate asko zeudela gure deyaren zai, badakigu; bañan zure etxeán bertan afea jotzea egokiyena zan, iñork ez daki-ta, etxetarák bezin ongi, ildakoaren maindire eder eta zuriyak biltzen eta tolesten.

Jainkoak artarako gai egin zaitu. ¡*Ongi etorí beaz!*

\* \* \*

Ora or goiko  
ariztitxo baten  
kukuak umiak  
egin yozak aurten :  
kukuak egin,  
amilotxak jan,  
jau bere kukuaren  
zoritxaña zan!

Euskaltzaindia, basorik-baso, mendirik mendi, batabil, euskeraren kukualdiya egiten. Zenbat lan ta zenbat izerdi!

Alegiñik aundiyanak euskera zutitzeko, beronek dagizki. An eta emen, Euskaleri guziyan kukutxuak erditzen ditu... Ez bitza iñolaz amilotxak jan. Ez bezayo iñork eragozpenik jaři! Euskera gurea da; mintzoera bigun ta aberatsa. Jainkoak eman zigun. Jainkoak emandako gauz edeŕa, biyotzaren uŕezko kutxan gorde bear da.

Ta esanak esan.